

FONTES  
LINGVÆ VASCONVM  
stvdia et  
docvmenta



SEPARATA

Año XLVI • Número 118 • 2014

Batallonaren ordena.  
Doneztebe, 1840

JUAN JOSE ZUBIRI

# FONTES

## LINGVÆ VASCONVM

### stvdia et docvmenta



|  |     |
|--|-----|
| Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental<br><i>Gontzal Aldai</i>   | 221 |
| Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (I)<br><i>Gorka Lekaroz</i>   | 247 |
| Batallonaren ordena. Doneztebe, 1840<br><i>Juan Jose Zubiri</i>  | 279 |
| Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan<br><i>Mikel Aizpuru</i>                             | 321 |
| Birformulatzaille laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta<br><i>M.ª Jesús Aranzabe / José M.ª Arriola</i>   | 339 |
| Las mujeres de <i>El amigo congelado</i> de Joseba Sarrionandia: la utilización de personajes femeninos para hacer frente a los límites del lenguaje<br><i>Eider Rodriguez</i> | 359 |
| Topónimos alaveses de base antroponímica que tienen <i>huri</i> o <i>villa</i> como formante<br><i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>   | 367 |
| Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan)<br><i>Koldo Artola</i>   | 393 |

Año XLVI  
Número 118  
2014

# Batallonaren ordena. Doneztebe, 1840<sup>1</sup>

JUAN JOSE ZUBIRI\*

## SARRERA

**E**sku artean darabilgun testu hau Goizuetako udaletzeko artxiboa txukuntzen hasi zenean aurkitu zen eta Mankomunitateko teknikariak helarazi zigun iruzkin genezan. Argi eta garbi ikusten da Doneztebeko herriari zuzendutako ordenantza bat dela eta berez hango udaletxean egon beharko zukeela, izenburuan berean agertzen baita non egina dagoen: «Doneztebeco errian»; baina ez dakigu zein arrazoirengatik Goizuetako artxiboko paper artean azaldu da. Gainera urtea ere zehaztasun osoz agertzen da (1840ko urtarilaren 12a); hortaz, testua ongi koka daiteke lekuaren eta garaiaren aldetik.

Lau orri dituen dokumentua da, aski luzea beraz. Irakurraldi azkar batean nabari da gaztelaniazko beste baten itzulpena dela, bai erabiltzen den hiztegiagatik (hitz asko eta asko gaztelaniatik zuzenean hartutakoak eta berahala emandakoak baitira) bai itzultzaileak erabiltzen duen joskeragatik ere (gaztelaniazko itzulpen ia hitzez hitzekoa delako askotan). Hala ere, tokiko euskararen arrastoak ediren daitezke aurrerago ikusiko dugun bezala.

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

<sup>1</sup> Lan hau La Caixak diruz laguntzen duen Nafarroako Unibertsitate Publikoko «Nafarroako Ondare Ez-materialaren Katedra» izeneko eta 30.31.10.3654 kodea duen proiektuaren barrenean sartzen da. Eskerrak eman nahi dizkiegu: Dabid Anaut Leitzaldeko Mankomunitateko euskara teknikariari testua helarazteagatik eta Lidia Montesinos artxibo-miatzaileari utzitako apunteak eta transkribaketarengatik; Ángel García Sanz eta José Miguel Lana Berasain historialariei, bereziki azken honi, egindako ohar guztiengatik eta gaztelaniazko bertsioa aurkitzen emandako laguntzagatik, berari zor diot aurkikuntza hau; eskerrak baita ere Ismael Maestro Pablo NUPeko liburutegiko Ondare zahar eta bereziko liburuzainari; eta batez ere nire eskerrik bihotzekoenak testua irakurri, zuzendu, oharrak egin eta gaiaren inguruan argudiotan hainbat denbora igaro dugun Ekaitz Santazilia, Iñaki Camino eta Patxi Salaberri irakasle euskalari. Testuan dauden hutsak, jakina, nireak dira, ez beste inorenak.

## 1. TESTUAREN ANTOLAMENDUA

Artxiboan aurkitutako dokumentura joz gero, aise ikus daiteke izenburuaz landara, gainerako guztia batera emana dagoela, hau da, testu guztia segidan aurkitzen dela lerroz lerro puntu eta aparterik gabe (ikus 1. eranskina). Horrela, sarrera moduko baten ondoren, jarraian, artikulua banan-banan zerrendatzen dira bat bestearen ondotik, inolako eten nabarmenik edo puntu eta aparterik egin gabe, alegia, dokumentua bukatzen den arte. Berez, itxurari begiratu, hasieran izenburu moduko bat agertzen da, eta gero, aparte, oso lerroaldi luze batean –esan bezala, testua bukatu arte– biltzen da gainerako guztia, has eta buka.

Testuaren barne-egiturari dagokionez, esan daiteke lau zati dituela: izenburua, sarrera, 37 artikulua (banaka-banaka zenbatuak) eta bukaera.

Izenburuan datu nagusiak agertzen dira: zer den (batailoaren ordena), data (1840ko urtarrilaren 12a) eta herria (Doneztebe).

Ondoren, aparteko lerroaldi batean, sarrera dator. Bertan, jakinarazi nahi da, garaiko legediaren arabera, hainbat delitu eta konspirazioen aurkako epaiketa-prozedura ezarriko dela, eta horixe da hain zuzen ere herriari aditzera eman nahi zaiona.

Segidan, aipatutako prozedura hori zehazten duten 37 artikulua garatzen dira banan-banan. Jatorrizko testuan orain aipatu dugun sarrerari atxikia dago hau dena, eta artikulua guztiak elkarren segidan zerrendaturik heldu dira.

Azkenik, bukaerako zatian –hau ere aurrekoaren segidan jatorrizko testuan– lekuak, datak eta hainbat izen agertzen dira lege horren ziurtatzailetzat ematen direnak.

## 2. TESTUAREN TRANSKRIPZIOA

Esan bezala, artxiboan agertutako paperetan, testua, has eta buka, dena bat da, puntu eta aparterik gabe, dena segidan (ikus 1. eranskina). Baina hona ekartzerakoan, sarrera eta artikulua guztiak bereizi ditugu, alde batetik, irakurketa erraztearen, eta beste aldetik, iruzkinetan eginen ditugun erreferentziak errazago eman eta aurkitzearen. Transkripzio gaurkotua ere ikus daiteke, nahi izanez gero, bigarren eranskinean.

**(Batallonaren ordena. 1840 - 01 - 12. Doneztebe)**

Batallonaren ordena. Ilbeltzaren amavigarrena, milla zortzitan eun eta berrogei. Doneztebeco errian.

Guelditurican bere funcioetan, comisio militarra, egecutiva, eta permanentea, provincia onetacoa, eta izanic preciso juzgatzea legue Apirillaren milla, zortzitan eun eta ogeuita batecoren conforme, delitore, conspiracio, infidencia, eta gañeracoac artan esaten diranac, erreguearen ordenen conforme, azqueneco abenduaren amairuan emanac, ematen da aditzera egercituco ordenan allega dadin gucien noticiara, paratzen delaric onen segidan esan den legue ori, izan dezaten aren ezaugüera allegatzen bada casoa juzgatzecoa, edo formatzeco causa esan den delito edo culpa ori ena nafarroco Virreyen Secretarían zazpigarren decretoa, apirillaren amazapian, milla zortzitan eun eta ogeuita bat, ezagura eta proceditzeco conspiracioco causen gañean.

Corteac observatu ezquero formalidade guziac constitucioan, decretatu dute seguidan ematen dena.

Artículo 1.º Legue onen objetoac dira formatzen diran causac, conspiracioz, edo maquinacioz, constitucioaren observacioen contra, edo barrengo edo campoco estaduaren, edo erregue constitucionalaren seguridadearen contra.

Artº. 2.º Reoac edo presoac delito oyetacoac izan ditecela edocin clase edo graduaciocoac, izaten badira atzemanac tropaco partidaren batec; ala egercito permanenteac, nola milicia provincialac, edo localac, destinatuac gobernuac orien perseguitzeco beste lanic gabe, edo gefe militar, edo comisionatuac orretaraco bearden autoridadeac, izan ditecela juzgatuac militarmente consejo Guerraco ordinarioan, baita zortzigarren leguea titulo 17, libru 12, recopilacio berrian dagon bezala. Presoac eguiñen balira ordenaren batequin, encarguz edo autoridade civilari ausilioa emanaz, causaren ezagura tocatuco zayo jurisdicio ordinarioi.

3.º Ala berean izanen dira juzgatuac militarmente conceju berean arreglaturic, legue 10, titulo 10, libru 12, recopilacio berean<sup>2</sup> dagon becela, clase onetaco presoac arrapatzen diranac, suzco arma edo churiac, edo beste edociñ instrumento, ofenditzecoarequin, eguiten badute contra arrapatzen dituen Tropari, ala egercitoa, nola milicia provinciala, locala, nai[z] izan presoac eguiñac ordenarequin edo ausilio emanarequin autoridade civilari.

4.º Guardatzeco resistencia edo desafuero aurreco articuloac esaten duen orretatic, noticiac edo avisoac errecibitzen diran bezala, badirala cuadrilla edo partida facciosoren batzuec, constitucioaco erreglan contra; Policiaco<sup>3</sup> autoridadeac publicatuco dute instante berean, responsabilidade estuaren azpian bando bat espresatzen dutela ordua, bereala bertatic dispersatu ditecen edo bana ditecen facciosoac eta itzuli ditecela bacochoa beren lecueta edo ichetara.

5.º Bando au publicatuco da eta circulatuco da bereala bertatic jurisdicio gucian, eta pasaturic orduen numeroa señalatuac autoridadeac bando orretan circunstancian conforme, entenditzen da eguiten dutela resistencia Tropari, izateco juzgatuac artículo 3.º orretan dagon bezala, persona esaten diran oyec = 1.º Elcarrequin juntaturic iderotzen diranac facciosoequin, naiz ez izan armaric = 2.º Tropac arrapatzen dituenac iguesi diocela facciosoequin, egondu ezquero = 3.º Ayequin egondu ezquero topatzen diranac beren ichetatic campora armaquin.

6.º Bandoac esaten duen demboran aurreco articuloac dion bezala obedecituric autoridaden deyari Retirutzen diranac beren ichetara preso eguin baño len ez diralaric autore conspiracioco principalac eta ez dutelatic beste culparic facciosoequin unitzea baicic izanen dira indultatuac pena gucietatic.

7.º Obligacioa paratua Politicaco autoridadeay bandoaren publicatzearen gañean, ez diote eragotzico artzea alditzaquean edo convenidiran neurri guciac dispersatu edo banatzeco edoceiñ reunio faccioso, baita ere arrapatu culpanteac eta atajatu gaitza bere principioan.

<sup>2</sup> Jatorrizkoan *bererean* agertzen da, hau da, lehenengo *-re-* tatxatua. Hala ere, gaztelaniazko bertsoan «Novísima Recopilacion» agertzen da.

<sup>3</sup> Gaztelaniazko bertsoak «*las autoridades políticas*» dio.

8.º Salteadoreac edo bidetaco napurrac errietatic campoan, eta orañic errietan diralarica cuadrillan lau edo gueyago izanen balira arrapatuac egercituco tropac, edo milicia Provincialac, edo localac, casoren batean esaten duten becela articulo 2.º eta 3.º, izanen dira modu berean juzgatuac militarmente, ayetan prevenitzen den bezala.

9.º Edociñ caso aurreco articuloac esaten duten guisan, baldiñ milicia provincialac edo localac berez eguiten baditu presoac, consejo guerraco ordinario componduco da clase orretaco oficialequin ordenanzaren conforme: baña concurrituco baluque tropa permanenteac preso orien eguitera acudituco dute conseju guerracora bi clase orieta-co oficialeac número berdiñean, eta presidentea izanen da ordenanzaren conforme.

10. Conseju guerraco sentencia ordinarioac egecutatuco dira instante berean aprobatzen dituelaric capitan generalac, entenditzen dela bere auditorearequin. Baldiñ ezpada conformatzen bialduco ditu auto originalac lembicico correotic Tribunale especial guerraco eta marina-coari; eta onec beardu eman bere sentencia iru eguneco termino precisoan luzenaz ere: eta an erortzen den sentencia egecutatuco da consultaren necesidade gabe.

11. Militarmente formatzen diran proceso gucietan aurreco articuloen virtutez, escusatuco dira alden gucian careoac arreglaturic len esan den Real ordenari, nota 16, titulo 17, libro 12, recopilacio berrian dagon bezala.

12. Baldin fiscalari iduritzen balitzayo conveni dela, gravedade eta circunstancia causa batenari ceñetan diran preso diferenteac, eta formatzea pieza separatuac, eguin dezaque gueyena conveni dena procesoaren acabatzeco laster, eta beti practicatuco du edociñ presorequin resultacen bada confesatu duela bere falta, ez dadiñ atzeratu oyen sentencia, eta egecucio prontoia.

13. Beste gañeraco caso gucietan presoac delito oyetacoac izanen dira juzgatuac jurisdicio ordinarioac, borrarzen diralaric fuero guciac, naiz izan dadilla aprensioa fuerza armadacoac eguiña.

14. Legue onen causalean<sup>4</sup> ez da izanen lecuric competenciaraco ez bada izaten jurisdicio ordinarioa, eta militaren [*sic*] artean, emen limiteac señalatzen diran bezala. Competencia promovitzen diranac deciditu edo aclaratuco ditu Tribunale supremo justiciacoac 48 orduren barrenean, errecibua artu ezquero.

15. Lembicico instanciaco juezac ceñi tocatzen zayon ezagura causa oyena emanen diote preferencia exclusivo bat, caso bearrean pasatzeco clase distintocoac bestera edo beste Juezatara, baldin badira erri berean.

16. Informacioan beardu resultatu bete betean acreditatua delitoaren motivoa, baña eman diteque acabatutzat, eta elevatu causa acusacio-co estadura, naiz procesatua ez dagola, choll venzitua, baldin pruebac, eta indicioac inclinatzen badute jueza bere prudenciarequin siñistatzera tratatzen dena reotzat dela culpablea edo inocentea, eta causac ez duela presentatzen motivo fundaturican gueyago aurreratzeco sumarioan edo ofrecitzen zayo eguin dezaquela suficientemente plenarioan.

17. Sumarioa formaceco, Juez lembicico instanciacoa, balia diteque edociñ escribo Re.[al] edo númeroco partiducoa<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> Gaztelaniazko bertzioak dio «*En las causas de esta ley*».

<sup>5</sup> Jatorrizko bertzioan: «*cualquier escribano Real ó Numerario del partido*».

18. Lembicico instanciaco Juezac acordatuco du pieza separatuen formacioa prevenitzen den bezala legue onen amabigarren articuloan.

19. Recibitzen delaric Presoari confesioa eta balitz meritoa edo le-cua acusatzeco, formalizatuco du promotore Fiscalac iru egunen barreanean gueyenaz: Traslado auto onetan presoari izanenda ecin luza ditequean termino berean, eta recibituco da causa pruebara.

20. Presoac ogeita lau orduren barreanean lucenaz nombratuco ditu procuradorea eta abogadua vici diranac partiduan edo orduan an ideroz-zen diranac, eta eguiten ez badu, nombratuco dira bertatic oficioz.

21. Promotore fiscalac eta Reoaren procuradoreac presentatuco dute ogeita lau orduren barreanean autoac itzuli ezquero, lista testi-güena cargucoa eta descargucoa, ceñez baliatu nai duten bacochar bere pruebaraco. Lista oyec comunicatuco dira parteay tachen oposicionaco juicioa celebratu bearden egunean eta gañeraco efectoetaraco.

22. Testigüen listac esanen dute vecindadea, estadia, eta destino edo modua vicitzeco. Testiguac arkitzen diranac zazpi legoa edo que-yago bide regularraren beren residencia juzgado, edo Tribunaletic izan-zen dira avisatuac aguer ditecela personalm.<sup>te</sup>, baita ere partetatic batec reclamitzen dunean eta Juezac estimatzen duenean dela preciso cargu-raco eta descarguraco personalm.<sup>te</sup> presentatzea. Gañeracoac izanen dira esamiñatuac esortoz, ceñean observatuco den prevenitzen dena zazpigarren articuloan Burubillaren amaicagarreneco leguea 1820. Regla oyec berac aplicatuco dira testigüen sumarioen ratificacionaco.

23. Juezac señalatuco du alic ere lasterrena eguna testigüen pre-sentacionaco, eta juicioaren celebratzeco. Artan izanendira esamiña-tuac ate idequiaquin, bacochara separaturic, promotore fiscalac, reoa, bere Procuradorea, eta abogaduen aurrean. Solemnidade berarequin leituco dira declaracionac presentatzen ez diradenenac personalm.<sup>te</sup>. Declaracionac izanen dira firmatuac daquiten testigüac. Baldin parteac edo Reoaren abogaduac balu eguiteco observacionen bat, testiguay oyec declaraciona eguiteco demboran, eguin dezaquete juezaren medioz eta escribituco dira nola galdeac [*sic*] ala observacionac, baita ere res-puetac declaracionen ondotic.

24. Acabaturic acto au promotore fiscalac, reoac, eta bere aboga-duac presentatuco dituzte instrumento probacoac beren favore dituz-tela uste dutenac, eta esponituco dute conveni zayoten gucia eta, trámite edo escrito gueyago gabe, emanen du Juezac sentencia iru egu-neathen barreanean.

25. Notificaturican parteay Juezac emplazatuco ditu zortzi egune-co terminorequin audiencia territorialara, ematen zayolaric reoari adit-zera bertatic, nombra ditzan bere Procuradorea eta abogadua, eta pasaturic termino au, eta bi egun gueyago, ez badira presentatzen pro-curadorea, eta abogadua Reoac nombratuac residitzen dutena orduban [*sic*] capitalean, fiscalac nombratuco ditu oficioz.

26. Tribunalearc fijatuco du terminoa autoen despachatzeco fiscalac, Procuradorea, Reoarena, eta relatorea. Eta ez diteque pasatu iru egu-neathen termino conceditua bacochari.

27. Aurreco articuloac esaten duen plazoen barreanean parteac sub-ministra dezaquete semaneroaren aurrean beren dezaqueten pruebac, eta bear zayote admititu arreglaturic legueari.

28. Plazo oyec pasatu eta bereala procedituco da causaren vistara corresponditzen zayon salan, agregatzen dirala ministro zarrenac beste

saletatic, sei juntatu arte, sartzen delaric oyen artean regentea, edo onen partez dagoena, bear du beti asistitu.

29. Iru egunen barrenean lucenaz, bear da pronunciatu sententia.

30. Tribunaleac ez du izanen causa oyetaraco orduen numero determinaturic. Juntatuco da gabaz eta egunaz conveni den dembora gucian, eta urgencia den bezala.

31. Votoen mayoría absolutac formatuco du sententia. Casoetan votoac berdin diranean, conformatuco da juez primera instanciacoac ematen duenarequin, ez baldin bada conformidade osoa favorable Reori.

32. Erortzen den sentenciac causatuco du egecutoria. Libertadecoa bada egecutatuco da bertatic. Pena capitala bada 48 orduen buruan. Gañeraco guciac posibleden lasterrena.

33. Plazo señalatzen dituenac legue onec dirade ecin luza ditezqueanac pretesto, suspensio, restitucio eta beste gañeracoac gatic, ez dira ere admitituco instancia eta recurso indultucoric.

34. Compliceac legue onec tratatzen duen delituetan, izanen dira juzgatuac Reo principalac bezala, esan den leguearen conforme.

35. Causac arquitzen diranac orain berean arquitzen diran estaudan, legue au publicatzean arreglatuco dira aurrera seguitzeco berac prevenitzen duen guisa, baña atere gabe bacocha bere juzgadutic, ceñetan arquitzen den yarria.

36. Legueac materia onen gañean entendituco dira borratuac, contrario diranac presentecoari.

37. Legue onen disposicioac entenditzen dira, limitatuac, peninsulaco provinciari, eta isla adyacenteay. Eta au presentatzen dute cor-teac á S.M. izan dezan hontasuna [*sic*] emateco bere sanzioa.

Madrid 17 de Abril de 1821, = José M,<sup>a</sup> Gutierrez Deteran Presidente Vicente Tomas Traber Diputado Sec<sup>o</sup>. = Fran<sup>co</sup>. Fernandez Gasco Diputado Sec<sup>o</sup>. Madrid 25, de Abril de 1821, Publica dedilla leguea bezala = Fernando = como Sec<sup>o</sup> del despacho de gracia y justicia D<sup>n</sup>. Vicente Cano, Manuel = Es copia = Ribero = Es copia = El comand.<sup>te</sup> encargado del E. M. = Antonio Ulíbarri = Es copia = El comand.<sup>te</sup> accidental = Luis

### 3. TESTUAREN ITURBURUA

Itzultzaileak eskuartean erabili zuen jatorrizko testua ez dugu aurkitzerik izan. Sarrerako paragrafoan garbi dioenez «*Guelditurican bere funcioetan, comisio militarra, egecutiva, eta permanentea, provincia onetacoa*»<sup>6</sup>, eta berehala beheitixeago «*nafarroco Virreyen Secretarian*» garbi adierazten da Nafarroako bertako aginduren baten hitzez hitzeko itzulpena dela; eta hain zuzen ere testu honen beronen jatorrizko bertsioa ez dugu aurkitu.

Paragrafo horretan bertan aipatzen da, halaber, zein eduki duen dokumentuak, hau da, zein delitu mota biltzen duen araudiak (*cf. delitore, conspiracio, infidencia, eta gañeracoac artan esaten diranac, erreguearen ordenen conforme*) eta zein dekretutan oinarritzen den (*cf. apirillaren amazazpian, milla zortzitan eun eta ogueita bat*). Horretaz gainera, zehazki esaten du baita ere hizpide duen dekretu hori dakarrela ondoren (*cf. paratzen delaric onen seguidan esan den legue ori*).

<sup>6</sup> Azpimarrak gureak dira.



Eta hain zuzen ere, eskura etorri zaigun testu hau dekretu horren itzulpena –ia hitzez hitzekoa– da, hasierako paragrafoa eta bukaerako zatiak kenduta. Hau da, abiaburuko testu zehatza aurkitu ez dugun arren, ohartu gara lehenbiziko paragrafoan aipatzen den 1821eko lege horren itzulpena dela ia testurik gehiena. Izenburua, hasierako paragraforik gehiena (zehazki «Nafarroako Virrey» delakoari erreferentzia egiten diona), eta lekua eta data agertzen den bukaerako paragrafoa kenduta (azken paragrafo honetaz gain, azken artikuluan, 37.ean, agertzen den atzeneko esaldia kenduta «*Eta au presentatzen dute corteac á S.M. izan dezan hontasuna emateco bere sanzioa*», hau ere ez baita agertzen), gainerako guztia lege horretan biltzen denaren hitzez hitzeko itzulpena da. Bestela esan, hasierako paragrafoko azken esaldia (cfr. *Corteac observatu ezquero formalidade guziac constitucioan, decretatu dute seguidan ematen dena*) eta segidan datozen 37 artikuluen testua –azkeneko artikulua azken esaldia izan ezik– aipatutako 1821eko dekretu horren itzulpena da.

Testuaren zatirik gehiena 1821. urtean *Gaceta* (edo *Gazeta*) de *Madrid* –beranduago *Boletín Oficial del Estado* (BOE) izanen zena– aldizkarian jasotzen denaren itzulpena da. Dekretu hau 1821eko apirilaren 17koa da, maiatzaren batean argitaratua 123. zenbakian, 621-622 orrialdeetan (ikus 3. eranskina); bertan Erregearen, Estatuaren edo Segurutasunaren aurkako konspiraziozko kausei buruzko legea onartzen da. Honako izenburu hauxe du: *Decreto sobre las causas que se formen por conspiración o maquinaciones directas contra la observancia de la Constitución, ó contra la seguridad interior ó exterior del Estado, ó contra la sagrada e inviolable Persona del Rey constitucional*.

Baina guri iritsi zaigun testu hau Hiru urteko konstituzionalean (1820-1823) agertutako estatuko dekretu honen egokitzapen bat izanen da, geroago, 1836ko abuztuaren 30ean, indarrean berriz paratu zena. Bertsio hau Nafarroako Erreinuak –geroexago Probintzia izatera pasatuko zenak– bere egin zuen estatuko dekretuaren aldaera bat da; tituluak eta sarrerak garbi salatzen baitute. Gainera, sarrerako zati honetan aipatzen den «Virrey» karguak 1840ko abenduaren 15a arte iraun zuen, eta lehen aipatu dugun Hiru urteko konstituzionalaren garaian *Virrey* delako figura edo Erregeorde hori kendu eta bere ordainez *Jefe Político* izendatu zen –ondoren Gobernadore Zibila izanen zena–. Hortaz, garbi da testuaren zati hau, sarrera alegia, ez dela 1821ekoa, baina gainerako guztiak bat egiten du lege horretan datorrenarekin.

#### 4. TESTUAREN GRAFIA

4.1. Gaztelaniazko hitzen grafia errespetatzen da ia beti (cfr. *funcioetan* (0)<sup>7</sup>, *comisio militarra* (0), *provincia* (0), *preciso* (0), *conforme* (0), *conspiracio* (0), *infidencia* (0), *noticiara* (0), *casoa* (0), *causa* (0), *culpa* (0), *Virreyen* (0), *constitucio* (0),... *facciosoac* (4), *favorable* (31)...

Zenbait hitz tilet eta guzti markatuta agertzen dira, gaztelaniaz bezala: *Secretarian* (0), *Artículo* 1.º (1), *artículo* (5), *númeroco* (17), *trámite* (24), *mayoria* (31), *á* (37)...; eta, jakina, izen berezietan ere bai: *José* (bukaeran), *Ulíbarri* (bukaeran).

<sup>7</sup> Parentesian agertzen diren zenbakiak testuko paragrafo edo artikuluen zenbakiei egiten diete erreferentzia: 0 = sarrera, 1 = 1. artikulua, 2 = 2. artikulua... Zenbaitetan, parentesia ez ezik kortxeteak ere agertzen dira, adib.: *libru* (3 [2]); horrek esan nahi du 3. artikuluan «libru» hitza bi aldiz agertzen dela.

Gaztelaniazko hitzen grafian aurkitzen den salbuespen bakarra <x>-z idazten diren hitzak dira, ez baita bakar bat ere aurkitzen grafema horrekin idatzirik, denak <s>-rekin emanak daude testu honetan: *ausilioa* (2), *ausilio* (3), *esclusivo* (15), *esamiñatuac esortoz* (biak 22), *esamiñatuac* (23), *esponituco* (24).

4.2. Gaztelaniaz ohi den moduan, <b> eta <p> grafien aurretik <m> idazten du egileak: *campoco* (1), *campora* (5), *campoan* (8), *componduco* (9), *competenciaraco* (14), *Competencia* (14), *emplazatuco* (25), *Compliceac* (34), *demboran* (6, 23), *lembicico* (10, 15, 18), *nombratuco* (20, [2]; 25), *nombra* (25), *nombratuac* (25), *dembora* (30).

Baina gaztelaniaz -nv- denean errespetatu egiten da: *conveni* (7, 11, 12, 24, 30).

4.3. <b> eta <v> grafemen erabilera. Gaztelaniazko hitzetan jatorrizko grafia ematen da: *Batallonaren* (izenburuan), *observatu* (0), *Virreyen* (0), *objetoac* (1), *observacioen* (1), *provincialac* (2, 8), *gobernuac* (2), *libru* (2), *civilari* (2), *bando* (4), *avisoac* (4), *obedecituric* (6), *obligacioa* (7), *prevenitzen* (8), *aprovatzen* (10), *virtutez* (11), *gravedade* (12), *acabatzeco* (12), *promovitzten* (14), *esclusivo* (15), *motivoa* (16), *elevatu* (16), *venzitua* (16), *culpablea* (16), *vecindadea* (22), *observatuco* (22), *favore* (24), *vistara* (28), *votoen* (31), *favorable* (31).

Euskarazko hitzetan, hasieran, gehienetan *b-* aurkitzen dugu: *berroquei* (izenburuan), *bere* (0), *batecoren* (0), *bada* (0), *bat* (0), *barrengo* (1), *badira* (2), *beste* (2), *bear* (2), *baita* (2), *berrian* (2), *bezala* (2), *berean* (3), *becela* (3), *bertatic* (4), *bacocha* (4), *baño* (6), *baicic* (6), *bidetaco* (7), *baluque* (9), *bi* (9), *baña* (9), *berdiñean* (9), *bialduco* (10), *beti* (12), *bete betean* (16), *buruan* (32), e.a.

Baina zenbaitetan <v> ere bada: *vici* (20), *vicitzeco* (22).

Hitz barnean beti <b> agertzen da: *abenduaren* (0), *gabe* (2, 10, 24, 35).

Kasu bakar batean ediren dugu *b/v* nahasketa: *amavigarrena* (0)/*amabigarrena* (18).

4.4. Ez da testu guztian zehar <k> grafiarik agertzen, beti gaztelaniazko jokaeretara lerratzen da itzultzailea: *ca*, *co*, *cu*, *que*, *qui*. Hona zenbait adibide: *Doneztebeco* (izenburuan), *guelditurican* (0), *casoa* (0), *causa* (0), *campoco* (1), *localac* (2), *encarguz* (2), *publicatuco* (4), *elcarrequin* (5), *fundaturican* (16), *amaicagarreneco* (22), *notificaturican* (25),... *comisio* (0), *batecoren conforme* (0),... *egecutiva* (0), *culpa* (0, 6), *articulo* (1, 4, 5), *cuadrilla* (4, 8), *lecueta* (4), *circulatuco* (5), *circunstancian* (5), *concurrituco* (9), *acudituco* (9), *lecuric* (14)... *esquero* (0, 14), *azqueneco* (0), *baluque* (9), *dezaque* (12), *diteque* (16, 17), *dezaquete* (27), *maquinacioz* (1), *arquitzen* (22; 35, hiru aldiz), *idequiaquin* (23), *daquiten* (23).

Gauza bera gertatzen da absolutibo pluraleko bukaerako morfemekin edo ergatiboarekin: *gañeracoac* (0), *diranac* (0), *emanac* (0), *corteac* (0), *objetoac* (1), *causac* (1), *batec* (2), e.a. Baita ere partitiboarekin: *lanic* (2), *armaric* (5), *culparic* (6), *lecuric* (14)...; edo ablatiboaren amaierako kontsonantearekin: *bertatic* (4), *ichetatic* (5), *gucietatic* (6), *errietatic* (8), *correotic* (10), *ondotic* (23), *saletatic* (28)... Eta halaxe berean, euskarazko -ko bukaerako atzizkia (genitiboarena, mendeko helburuko ez jokatuena eta besteena) beti -co agertzen da: *Doneztebeco* (izenburuan), *onetacoa* (0), *batecoren* (0), *gañeracoac* (0),

*azqueneco* (0), *egercituco* (0), *juzgatzecoa* (0), *formatzeco* (0), *proceditzeco* (0), *conspiracioco* (0), *campoco* (1)...

4.5. Gaztelaniazko <j> [x], beti <j> agertzen da (cfr. *juez*, *juzgadu*...), baina [x] + e beti <ge> grafiarekin (cfr. *egecutiva* (0), *egercito* (2), *gefe* (2), *egercitoa* (3), *egercituco* (8), *egecutatuco* (10, 32), *generalac* (10), *egecucio* (12), *regente* (28), *urgencia* (30), *egecutoria* (32)).

Salbuespen bakarra honako hau da: *objetoac* (1).

4.6. (-)ge(-)/(-)gue(-) bereizketa. Lehenbizikoa beti [x] da (cfr. ikus aurreko puntuan emandako adibideak), eta bigarrena [g] (cfr. *berroguai* (izenburuan), *Guelditurican* (0), *legue* (0, 1), *ogueita* (0), *erreguearen* (0), *Guerraco* (2), *iguesi* (5), *guyago* (8), *guyena* (12), *aguer* (22)). Ikusten den bezala, bi soinuak grafikoki bereizten dira.

Bestalde, hiatoa edo ustezko hiatoa ziurtatu nahi denean dieresia paratzen da: *ezaugüera* (0), *testigüena* (21), *Testigüen* (22). Hala ere, behar ez den zenbaitetan ere zalantza agertzen da dieresia paratu edo ez: *testiguac* (22), *testigüac* (23).

#### 4.7. Txistukariak

##### 4.7.1. Txistukari frikarien grafia

Gaztelaniaz *ci-* hasierarekin idazten diren hitzak bere horretan datozkigu testu honetan: *civilac* (2), *circulatuco* (5), *circunstancian* (5), *circunstancia* (12)...

Halaber, bukaerako *-ción* atzizkia beti *-cio* modura agertzen da euskarako bertsio honetan: *funcioetan* (0), *conspiracio* (0), *constitucioan* (0), *conspiracioz*, *edo maquinacioz*, *constitucioaren observacioaren* (1), *graduaciocoac* (2), *recopilacio* (2, 3, 11), *jurisdicio* (2, 5, 13, 14), *obligacioa* (7)...

Gainerako kasu guztietan ere tarteko *-ci-* guztiak gaztelaniazko moldean emanak daude. Adibidez: *provincia* (0), *preciso* (0), *infidencia* (0), *noticiara* (0), *egercituco* (0), *milicia provincialac* (2, 8, 9), *milicia provinciala* (3), *resistencia* (4, 5), *noticiac* (4), *policia* (4)...

Salbuespen bakarrak, hau da, gaztelaniazko grafiatik urruntzen direnak, honako hauek dira: *venzitua* (16), *sanzioa* (37).

Euskal hitzak ere *-ci-* grafiarekin ematen dira: *gucien* (0), *gucian* (5, 11, 30), *gucietatic* (6), *guciac* (7, 13, 32), *gucietan* (11, 13), *gucia* (24), *vici* (20), *vicitzeco* (22), *edocin* (2), *edociñ* (3, 12, 17), *ecin* (19, 33), *baicic* (6).

Salbuespen hau bakarra aurkitu da: *guziac* (0).

##### 4.7.2. Txistukari afrikatuen grafia

Txistukari sabaikaria, hau da, [tʃ] soinua, irudikatzeko gaztelaniako grafemara jotzen da, hots, <ch> idazten da: *churiac* (3), *ichetatic* (5), *ichetara* (6), *tachen* (21), *bacocha* (23, 35), *bacochac* (21), *bacochari* (26), *despachatzeco* (26), *choll* (16), *despacho* (bukaeran).

Bestalde, <tz> grafia erabiltzen da aditz izenak osatzeko: *formatzeco* (0), *proceditzeco* (0), *formatzen* (1), *arrapatzen* (3, bitan; 5), *ofenditzecoarequin* (3), *guardatzeco* (4), *errecibitzen* (4), *espresatzen* (4), *entenditzen* (5), *iderotzen* (5), *topatzen* (5), *retiratzen* (6), *unitzea* (6), *publicatzearen* (7), *artzea* (7), *banatzeco* (7)...

Aurreko moldeari atxikitzen ez zaizkien albuespen bakarrak honako hauek dira: *formaceco* (17) eta *resultacen* (12).

Grafia bera, hau da <tz> agertzen da hitz barnean ere: *zortzitan* (0), *atze-manac* (2), *zortzigarren* (2), *batzuec* (4), *itzuli* (4, 21), *eragotzico* (7), *alditzaquean* (7), *gaitza* (7), *balitzayo* (12), *atzeratu* (13), *acabatutzat* (16), *reotzat* (16), *balitz* (19), *zortzi* (25), *ditzan* (25).

Gainerako kasu guztietan, ozen eta txistukarien ondoren, hain zuzen *-nz/-ns/-rz/-rs-* kontsonante elkartetetan, gaztelaniazko grafiara lerratzen da: *funcio*, *provincia*, *principio*, *preferencia*... (horrelako 21 hitz desberdin daude); *consejo*, *responsabilidad*, *consulta*, *aprensio*, *suspensio* eta *peninsula*; *egercitol-u* (4 aldiz), *fuerza*; *perseguitu*, *dispersatu*, *persona(l)mente*, *recurso*.

Lehen adierazi dugun bezala, <ts> digrama daraman adibideren alerik ere ez da agertzen testu guztian.

#### 4.8. Kontsonante sabaikariak (ll/ñ/y)

Alboko sabaikaria <ll> grafiarekin emana agertzen zaigu beti, ondoko adibide hauek erakusten duten moduan: *Batallonaren* (izenburuan), *illbeltzaren* (izenburuan), *apirilla* (0), *milla* (0, bi aldiz), *allega* (0), *allegatzen* (0), *cuadrilla* (4, 8, 18), *dadilla* (13), *choll* (16), *burubillaren* (22), *dedilla* (azken paragrafoan).

Bestalde, sudurkari sabaikaria <ñ> grafiarekin ematen da, nola gaztelaniazko hitzetan hala euskarazkoetan. Adibideak, arruntean hartuz, honako hauek dira: *gañean* (0, 36), *eguiñen* (2), *edociñ* (3, 9, 12, 17), *eguiñac* (3), *baño* (6), *gañean* (7), *edoceñ* (7), *orañic* (8), *baldiñ* (9, 10), *baña* (9, 16, 35), *berdiñean* (9), *ceñetan* (12), *dadiñ* (12), *gañeraco* (13, 21, 22, 32, 33), *eguiña* (13), *señalatzen* (14), *ceñi* (15), *siñistatzera* (16), *ceñez* (21), *esamiñatuac* (22, 23) *ceñean* (22), *señalatuco* (23), *señalatzen* (33), *ceñetan* (35).

Azkenik, igurzkari sabaikaria <y> grafiarekin irudikatzen da. Alde bate-tik, adibidez, 1. eta 3. graduko erakusleak: *oyec* (5, 21, 22, 23, 28), *oyetacoac* (2, 13), *oyetaraco* (30), *oyen* (12, 28), *oyena* (15), *ayequin* (5), *ayetan* (8). Beste aldetik, *nor-nori* adizlaguntzailearen 3. pertsonari dagozkion formak daude: *zayo* (2, 16), *balitzayo* (12), *zayon* (15, 28), *zayoten* (24), *zayote* (27), *zayolaric* (25). Konparaziozko honako hauek ere <y>-rekin agertzen dira: *gueyago* (8, 16, 22, 24, 25), *gueyena* (12), *gueyenaz* (19). Sail hau bukatzeko aipatzekoa da *dei* izenean agertzen dena ere, kasu honetan datiboan deklinatua: *deyari* (6).

Aparteko lekua merezi du sabaikari hau agertzen den beste hitz batek, *yarrria* (35) hitzean agertzen den hasierako kontsonanteak hain zuzen ere. Testuan *y*-rekin idatzirik agertzeak esan nahi du aditz honen hasierako hotsa ez dela [x], *juez*, *juzgadu jurisdicio*, e.a.-ean agertzen zaigun bezalakoa, [j] bai-zik, hau da, arestiko sabaikarien antzekoa dela, baina igurzkaria izan behar-rean herskari bihurturik hitz hasieran dagoelako. Ezaugarri garrantzitsua dateke dialektologiaren ikuspuntutik.

#### 4.9. Zenbait datibo pluralen grafia

Aurreko puntuarekin nolabaiteko lotura badu honek, gutxienez grafiak emateko itxuraren aldetik, zeren zenbait hitzen datibo pluralak *-y* grafiarekin ematen dira: *autoridadeay* (7), *parteay* (21, 25), *testiguay* (23), *isla adyacenteay* (37). Horrek ez du esan nahi, noski, aurreko kontsonante sabaikariaren ahoskera duenik; garbi da bokal itxiaren ordezkoa dela.

## 5. BOKALISMOA

Bokal asimilaziorik ez da ageri: *erria*, *provincia*, *guzia*...; *leguea*, *bear*, *permanentea*, *juzgatzea*, *seguridadea*, *berean*, *bereala*...; *gañeracoac*, *onetacoa*, *decretoa*, *presoak*, *abisoa*, *bandoa*...; *amairuan*, *destinatua*...

Aipatutako adibideetan ikus daitekeen bezala, bokal itxien eta artikulua-  
ren artean ez da inolako kontsonanterik txertatzen. Gertakari bera ez den  
arren, antzekoa denaren barrenean sar ditzakegu ondoko salbuespen hauek:  
*orduban* (25) eta agian baita ere *burubillaren* (22).

Zenbait mailegutan, bukaerako kontsonanteari dagokionez, *-o/-u* zalantza  
agertzen da: *libru* (3 [2])/ *libro* (11), *egercituco* (0, 8)/ *egercito* (2, 3), *conseju*  
(9, 10)/ *consejo* (2, 9). Ohartu azkeneko adibidean, esaterako, artikulua  
berean, 9.ean, bi moduetara agertzen dela *consejo* eta *conseju* hitza. Hala ere,  
badirudi joera *-u* bukaeraren aldekoa dela, erreparatu bestela ondoko bi adibi-  
bide hauei: *errecibua* (14), *indultucoric* (33).

Mota honetako hainbat mailegurekin zalantzak sor daitezke euskaraz  
emateko garaian, batez ere gaztelaniatik *-bereziki* femeninoko formatatik-  
zuzenean hartzen direnean. Adibidez, testuan horrelaxe aurkitzen da: *mayo-  
ria absolutac* (31). Ikus daitekeen bezala, hemen ere gaztelaniari jarraitu zaio  
orpoz orpo.

Aipatzekoa da «gau» hitzaren kontsonante erdiarekin jazotzen dena, zeren  
kontsonante bihurtzeraino iristen baita instrumentalean bederen: *gabaz* (30).

Diptongo laburdurak:

- *-ai-* → *-i-*: *ditecela* (2 [2]), *diteque* (16), *ditequean* (19), *ditezqueanac*  
(33).
- *-ei-* → *-i-*: *edocin* (2), *edociñ* (3, 9, 12, 17). Forma osoa ere agertzen da:  
*edoceiñ* (7).
- *-au-* → *-u-*: *arkitzen diranak* (22, 35).

*Atera* aditzaren *atere* (35) aldaera agertzen da testuan.

Azkenik, testua nongoa den jakinda esan beharrekoa da, ez dela ez aferesiren  
alerik (*ekarri* > *karri*, *esan* > *san* motako adibiderik) ez sinkoparen arrastorik  
(*arrapatu* > *arpatu*, *txokolate* > *txokolte* bezalakorik) ageri dokumentu guztian.

## 6. KONTSONANTISMOA

Hasteko, izenburuan agertzen den «Batallonaren» hitza dela eta, esan be-  
har da ez dela *-ón* → *-oi* bihurtzen, bere horretan mantentzen dela baizik,  
Leitzan (Olano, 1998: 77) eta Nafarroako beste hainbat lekutan bezala. Baina  
*-ión* → *-io* bihurtzen da beti: *Funcioetan* (0), *conspiracio* (0, 6), *constitucio-  
an* (0, 4), *maquinacioz* (1), *observacio* (1), *graduacio* (2), *recopilacio* (2, 3), *ju-  
risdicio* (2), *obligacioa* (7)...

Gaztelaniaz «-al»-ez bukatutako zenbait hitzek *-e* paragogiko bat hartzen  
dute: *oficialeaquin* (9), *oficialeac* (9), *Tribunale* (10, 14), *capitalean* (25),  
*Tribunaleac* (26, 30). Baina ez guztiek: *provincialac* (2), *provinciala* (3), *loca-  
la* (3), *principalac* (6), *generalac* (10), *originalac* (10), *especial* (10), *fiscalari*  
(12), *fiscalac* (21), *territorialara* (25), *capitala* (32).

Gaztelaniazko *-dad* atzizkia testuan *-dade* ematen da: *formalidade* (0), *se-  
guridadean* (1), *autoridade* (2, 3, 4, 6, 7), *responsabilidade* (4), *necesidade* (10),



*gravedade* (12), *vecindadea* (22), *solemnidade* (23), *conformidade* (31), *libertadecoa* (32).

Bestalde, *idequiaquin* (23) adibidean *-d-* dakusagu *-r-* beharrean.

Eta ohartzekoa da baita ere *napurrac* (8) ‘lapurrak’ aldaera. Gogoan izan behar da Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan badela «ñapur» bere larretik besterenera jotzen duten abereak izendatzeko.

Herskari sabaikaria agertzen da *yarria* (35) hitzaren hasieran. Mota hone-tako beste adibiderik ez badago ere, argibide aski ematen digu beste hainbat aditzetan ere (cfr. *jan, jo, josi...*) fonema bera aurkituko genukeela uste izateko.

Dardarkariak direla eta, gaztelaniaz *r-* hasiera duten hitzak, gehienetan, bere horrela ematen dira: *recopilacio* (2, 3, 4), *resistencia* (4), *reunio* (7), *responsabilidade* (4), *retiratzten* (6), *real* (11), *reoa-* (2, 16, 21, 23, 24, 25, 26), *recibitzen* (19), *reclamatzen* (22), *regularraren* (22), *residencia* (22), *regla* (22), *respuestac* (23), *residitzen* (25), *relatorea* (26), *regentea* (28), *restitucio* (33), *recurso* (33). Baina hauen ondoan beste hauek ere agertzen zaizkigu: *erreglen* (4), *errecibitzen* (4), *errecibua* (14). Ohartu 14. artikuluan *errecibua* agertzen dela, baina 19.ean *recibitzen* eta *recibituco*; halaberean suertatzen da beste hitz honekin: *erreglen* (4) baina *regla* (22).

Sandhi egoeran herskari ahostuna ez da ahoskabetzen: *ez diralaric* (6), *ez dutelaric* (6), *ez diote* (7), *ez dadiñ* (12), *ez da* (14), *ez bada* (14), *ez dagola* (16), *ez duela* (16), *ez badu* (20), *ez diradenenak* (23), *ez badira* (25), *ez diteke* (26), *ez du* (30), *ez baldin* (31), *ez dira* (33). Baina gertakari honetan ere ahozkoaren aztarnak ediren daitezke: *baldiñ ezpada* (10). Ohartu egitura bera 10.ean *ezpada* grafiarekin heldu dela eta 14.ean *ez bada* modura.

Bestalde, *-(r)ik/-(r)ika(n)* bukaera dela eta, bi aldaerak agertzen dira testuan zehar, nahiz eta *-an* gabeko formak gailentzen diren. Alde batetik daude: *guelditurican* (0), *fundaturican* (16), *notificaturican* (25), *dinalarica* (8); baina aldi berean badira antzeko adizkiak bukaerako *-an* hori gabe: *pasaturic* (5, 25), *juntaturic* (5), *obedecituric* (6), *arreglaturic* (3, 11, 27), *separaturic* (23), *acabaturic* (24); *diralaric* (6, 13), *ez dutelaric* (6), *dituelaric* (10), *delaric* (19, 28), *zayolaric* (25). Bukaera hori bera har dezaketen beste kasu guztietan gabe ikusten da: bai partitiboan (cfr. *armaric* (5), *lanic gabe* (2), *culparic* (6), *lecuric* (14)), bai ablatiboan (cfr. *orretatic* (4), *bertatic* (4, 5, 20, 25, 32), *correotic* (10), *gucietatic* (6), *tribunaletic* (22), *partetatic* (22), *ondotic* (23), *saletatic* (28), edo bai bestelako hitzetan ere (cfr. *baicic* (6), *orañic* (8), *alic ere* (23).

- Bustidura (ñ/ll)

Alboko sabaikaria dela eta, honako adibide hauek aurki daitezke: *illbeltza* (izenburuan), *milla* (izenburuan, 0 [2], ), *apirilla* (0 [2]), *allega* (0 [2]), *cua-drilla* (4, 8), *choll* (16), *burubillaren* (22), *dadilla* (13), *dedilla* (bukaeran). Baina gaztelaniazko hainbat hitzek izan zitzakeen bustidurarik ez da ageri, agian grafiagatik: *civilari* (2, 3).

Sudurkari sabaikaria honako adibide hauetan ikus dezakegu: *gañeraco* (21, 32), *gañeracoac* (0, 22, 33), *gañean* (0, 7, 36), *edoceñ* (7), *edociñ* (2, 3, 9, 12, 17), *eguiña* (13), *eguiñen* (2), *baña* (9, 16, 35), *baño* (6), *orañik* (8), *baldiñ* (10), *dadiñ* (12), *ceñi* (15), *ceñez* (21), *ceñean* (22), *ceñetan* (12, 35). Gaztelaniazko hitzetan, edo gaztelaniatik hartutakoetan, ere agertzen da: *señalatua* (5, 14), *señalatuko* (23), *señalatzen* (33), *esamiñatuak* (22, 23).

Bestalde, ahozko hizkeran herskari horzkariaren bustidura, hainbat kasutan, nahiko arrunta bada ere (*cf.* *ditu* > *dittu*, *leitu* > *leittu*), testu honetan ez da arrastorik atzematen: *guelditurican* (0), *obedecituric* (6), *eguiten* (3, 5, 9, 20), *eguitera* (9), *ditu* (10, 14, 20, 25 [2]), *dituelaric* (10), *dituenac* (5, 33), *baditu* (9), *dituzte* (24), *diteque* (16, 17, 26), *ditecela* (2 [2], 22), *ditecen* (4 [3]), *venzitua* (16), *deciditu* (14), *admititu* (27), *asistitu* (28), *acudituco* (9), *leituco* (23), *escribituco* (23), *esponituco* (24), *procedituco* (28), *admitituco* (33), *entendituco* (36).

*Eman*-en aditz izenean ager zitekeen bustidurarik ere ez da kausitu: *ematen* (0 [2], 25, 31).

## 7. MORFOSINTAXIA

### 7.1. Deklinabidea

- Ez da ergatibo sing/pl. morfologikoki bereizten. Bietarako *-ak* agertzen du testuak. Plurala den edo izan daitezkeen adibide hauek aurkitu dira, baina denetan *-ak* agertzen da:

- Corteac observatu ezquero formalidade guziac constitucioan, decretatu dute seguidan ematen dena (sarrera).
- Policiaco autoridadeac publicatuco dute (4).
- Edociñ caso aurreco articuloac esaten duten guisan (9).
- ... acudituco dute conseju guerracora bi clase orietaco oficialeac (9).
- ... aprensioa fuerza armadacoac eguiña (13).
- ... baldin pruebac, eta indicioac inclinatzen badute jueza (16).
- Promotore fiscalac eta Reoaren procuradoreac presentatuco dute (21).
- Testigüen listac esanen dute (22).
- Declaracioac izanen dira firmatuac daquiten testigüac (23).
- ... promotore fiscalac, reoac, eta bere abogaduac presentatuco dituzte instrumento probacoac (24).
- ... parteac subministra dezaquete (27).
- ... au presentatzen dute corteac á S.M. (37).

Ergatibo pluralaren itxura duena, baina ez dena, «batzuec» zenbatzailea da: *badirala cuadrilla edo partida facciosoren batzuec* (4).

- Datiboa dela eta, hainbat ohar egin beharrean gaude. Alde batetik, singularreko formak atzemateko ez dago arazo handirik, ia beti *-ari* hondarkia agertzen delako: *autoridade civilari* (2, 3), *tropari* (3, 5), *deyari* (6), *marinacolari* (10), *real ordenari* (11), *fiscalari* (12), *batenari* (12), *presoari* (19 [2]), *reolari* (25), *bacochari* (26), *legueari* (27), *presentecoari* (36). Esan berri dugu singularrean *-ari* atzizkia erabiltzen duela ia beti, zeren ondoko beste bi kasu hauetan *-ri* artikulurik gabeko hondarkia aurkitzen baita: *jurisdicio ordinariori* (2), *reori* (31). Itzultzailearen itzurtze hauek hobeki irudikatuko lukete ziurrenik ahozkoaren zinetako ahoskera.

Beste aldetik, plurala adierazteko badirudi nolabait bereizi nahi izan dela eta horretarako *-ay* bukaera hautatu dela: *autoridadeay* (7), *parteay* (21, 25), *testiguay* (23), *isla adyacenteay* (37).

Baina aipatutako azken adibide honen testuingurua hobeki aztertzen bada –edo itzulpenera jotzen bada– argiago ikusten da esanahia eta hitzen pluraltasuna:

- Legue onen disposicioac entenditzen dira, limitatuac, peninsulaco provinciari eta isla adyacenteay (37).

Itxura guztien arabera, eta orain arte esandakoari atxikita, *isla adyacenteay* sintagma datibo pluraleko hondarkia du; aldiz, esanahiari erreparatzen badiogu, aurreko sintagma datiboa ere pluralean dagoke, baina *-ari* atzizkiarekin agertzen da: *peninsulaco provinciari*. Gaztelaniazko bertsioan ere pluralean agertzen dira. Honek adieraziko liguke, datibo kasu honetan sing./pl. bereizketa formaren aldetik nolabait egiten saiatu arren (*cf.* sing. *-ari*, pl. *-ay*) agian ahoz egiazki ez zutela horrela bereizten eta forma idatzian islatu dela. Edo bestela, esan daiteke dimorfismoa dagoela eta bi formak erabiltzen direla bai singularra eta bai plurala adierazteko; Lizarraga Elkanokoak, adibidez, *-ari* eta *-ai* egiten du singularra, *-ei* (normalki) eta *-eri* (inoiz), plurala. Edo beste azalpen bat litzateke kontu grafikoa baizik ez dela aitortzea eta diptongoa irudikatzeke modutzat jotzea.

Azkenik, aipatu behar den beste kontua da *zeini*-ren bidez sarrera ematen zaion erlatibozko esaldi hau:

- Lembicico instanciaco juezac ceñi tocatzen zayon ezagura causa oyena (15).

- Edutezko genitiboaren inguruan, esan behar da singularra *-aren* moduan ematen dela: *barrengo edo campoco estaduaren, edo erregue constitucionalaren seguridadearen contra* (1), *consultaren necesidade gabe* (10), *delitoaren motivoa* (16), *reoareen procuradoreac* (21), *reoareen abogaduac* (23), *juezaren medioz* (23), *semaneroaren aurrean* (27), *causaren vistara* (28). Bada beste adibide bat, singularreko atzizkiarekin agertzen zaiguna eta itzulpen zuzenaren ondorioz bitxi xamarra gelditzen dena: *zazpi legoa edo queyago bide regularraren beren residencia* (22).

Salbuespenen artean sartzekoak dira ondoko adibideak, ez direlako *-aren* atzizkiaren bitartez ematen, *-ren* forma soilik erabiliz baizik: *batecoren conforme* (0), *constitucioeren observacioeren contra* (1).

Plurala beste adibide hauetan atzeman liteke: *obedecituric autoridaden deyari* (6), *aurreco articuloen virtutez* (11), *tachen oposicionaco* (21), *testigüen listac* (21), *testigüen sumarioen ratificacionaco* (22), *abogaduen aurrean* (23), *presentatzen ez diradenenac* (23), *declaracioen ondotic* (23), *plazoen barrenean* (27), *votoen mayoría* (31). Formari eta esanahiari begiratu pluraltzat jo litezke, zalantzarik gabe, baina gaztelaniazko bertsiora joz gero, goiko zenbait adibide honela aurkitzen ditugu, esaterako: *obedeciendo al llamamiento de la autoridad* (6), *ratificacion de los testigos del sumario* (22), *ante... su abogado* (23), *a continuacion de la declaración* (23). Hau da, gaztelaniaz singularrean dauden zenbait genitibo pluralean eman dira. Edo bitik bat: itzultzaileak nahita jokatu du era horretan, edo bestela pentsatu behar da sing/pl. bereizketa ez zela oso garbi egiten. Edo badagoke beste hirugarren azalpena: singularrean polimorfismoa zegoela esatea.



Hitz elkarketa behar lukeen ondoko esapide honetan genitibo plurala agertzen da, itzulpen ez oso egokiaren ondorioz: *ez du izanen causa oyetaraco orduen numero determinaturic* (30).

Bestalde, pluraleko forma desberdina dago izkribuan, ez baita besteetan bezala *-en* agertzen, *-an* baizik, ahozkoaren isla seguruenik hau ere: *constitucioco erreglan contra* (4).

Mugagabeko formak ageri dira beste hauetan: *iru egunen barrenean* (19, 24, 29), *casoren batean* (8), *observacioren bat* (23), *facciosoren batzuec* (4), *ogueita lau orduren barrenean* (20, 21), *48 orduren barrenean* (14). Baina begira beste honetan, ahozkoaren isla: *48 orduen buruan* (32).

Genitiboko egitura eskatzen duen *konforme* 'arabera', elementuari erreparatuz, itzulpenak itzulpen, honako adibide hauek aurkitzen ditugu: *legue Apirillaren milla, zortzitan eun eta ogueita batecoren conforme* (0), *ordenanzaren conforme* (9 [2]), *esan den leguearen conforme* (34).

Testuan zehar «konforme» agertzen den guztietan genitiboa eskatzen duten egitura batekin egiten dugu topo, baina beste adibide honetan begira nola datorkigun: *bando orretan circunstancian conforme* (5). Hots, idatzizko itxuran inesiboko forma den arren, begi bistakoa da azpian genitibodun egitura dagoela; kontua da forma idatzi hau ez dela heldu testuko beste genitiboak bezala jaso, itxuraz ahozko forma datekeenetik lertokigukeela baizik. Dena dela, egitura mota hau ez da arrotza; adibidez, Elkanoko Lizarragak honelako ugari darabiltza (*cf. Eliza Ama Sandarén conforme / ta dakiena paratzen egiaz izena izanaren conforme / onen conforme / izan gusto ona Jesusen conforme,...*).

Aurkitutako itxurazko kontraesan horiek denak garamatzate esatera genitiboko hondarkia ez zela pertsona guztietan (sing./pl./mugg.) ongi bereizten.

Azkenik, objektuaren genitibizazio egiturak agertzen zaizkigu: *bandoaren publicitatearen gañean* (7), *orien perseguitzeco* (2), *preso orien eguitera* (9), *procesoaren acabatzeco laster* (12), *juicioaren celebratzeco* (23), *autoen despachatzeco* (26).

- Soziatibo kasuan ere gauzak ez daude batere garbi. Itxuraz hiru numeroak (sing./pl./mugg.) bereiz daitezke testuan. Singularreko hondarkiak *-arekin* marka hartzen du eta honako hauek aurkitzen dira: *ofenditzecoarequin* (3), *ordenarequin edo ausilio emanarequin* (3), *auditorearequin* (10), *solemniade berarequin* (23), *duenarequin* (31). Pluralekoak, aldiz, *-akin* eta *-ekin*, bi markak agertzen zaizkigu: *armaquin* (5), *facciosoequin* (5, 6), *oficialeaquin* (9). Mugagabeko hondarkia dutenak ere badira: *edociñ presorequin* (12), *zortzi eguneco terminorequin* (25) (azken hau itzulpenaren ondorioz). Gauzak ez daudela garbi esan dugu hasieran adibideetako batean *ate idequiaquin* (23), esan dugunaren arabera pluraleko itxura du formaz, baina gaztelaniako bertsioan 'a puerta abierta' agertzen da.

- Lekuzko kasuetan numero bereizketa nabariagoa da. Ablatiboan, adibidez, sing. *correotic* (10), pl. *ichetatic* (5), *erroetatic* (8), *saletatic* (28); edo adlatiboan sing. *audiencia territorialara* (25; ez *-era*), pl. *lecueta* edo *ichetara* (4), *ichetara* (6). Inesibo pluraleko formak ere badira: *funcioetan* (0), *delituetan* (34). Eta beste ondoko esaldian lekuzko hiru kasuak heldu zaizkigu segidan: *bidetaco napurric errietatic campoan, eta orañic errietan diralarica* (8). Bereziki aipagarria da adlatiboaren *-rik* aldaera, iharturik segur aski, esaldi horretan bertan denbora balioarekin ageri dena, eta Nafarroan aski hedatua (*cf.* OEH).

Ohartzekoa da, bestalde, mendeko erlatibozko perpausak osatzeko erabiltzen den *zeine(t)an* menderagailu askea. Hona hemen adibideak:

- causa batenari **ceñetan** diran preso diferenteac (12).
- **ceñean** observatuco den (22).
- baña atere gabe bacocho bere juzgadutic, **ceñetan** arquitzen den yarría (35).

Bertan ikus daitekeenez, ez dirudi *zeinean/zeinetan* sing./pl. bereizketa egiteko erabiltzen denik edo beste nolabaiteko ñabardura emateko erabiltzen denik.

- Instrumentala dela eta, *-az/-ez* bukaerarekin agertzen dira ia adibide guztiak: *Gabaz eta egunaz* (30), *iru eguneco termino precisoan luzenaz ere* (10), *iru egunen barrenean gueyenaz* (19), *ogueita lau orduren barrenean lucenaz* (20), *ez diteque pasatu iru egunez* (26), *Iru egunen barrenean lucenaz* (29). Kontuan izan *-az/-ez* txandaketa hau ez dela sing./pl. bereizteko erabiltzen (cfr. *egunez* (26)/*egunaz* (30)). Bestalde, *-z* amaiera duen adibide bakarra aurkitu da: *juezaren medioz* (23).

Hemen ere aipagarria da, aurreko hainbat deklinabide kasutan bezala, erlatibozko esaldiari hasiera emateko erabiltzen den menderagailuaren erabilera:

- **ceñez** baliatu nai duten bacochoac (21).

- Kasu motibatiboaren inguruan esan behar da adibide bakarra aurkitu dela: *beste gañeracoac gatic* (33). Ikus daitekeen moduan, absolutibo pluralaren gainean eraikia dago, eta ez genitiboaren gainean.

- Prolatiboaren bi adibide azaltzen dira testuan, biak 16. artikuluan: *eman diteque acabatutzat* eta *tratatzten dena reotzat*.

## 7.2. Aditza

- Testu osoa modu inperzonalean idatzia dagoenez, 3. pertsonako adizkiak agertzen zaizkigu: *dago*, *da/dira*, *du/ditu*, *dute/dituzte*, *zayo/zayote*, *dio-te...*

- *Joan* aditz trinkoaren forma bakarra edireten da testuan, hura indikatiboan: *diocela* (5) (< di(h)oazela).

- \**Io* 'esan' aditz trinkoko forma bat agertzen da: *Aurreco articuloac dion bezala* (6). Ohartu, dena den, gaztelaniazko bertsoiak «*de que hablan los artículos anteriores*» dioela.

- *Bialdu* aditza. Badirudi partizipioak eta honen gainean eraikitako geroaldiak (cfr. *bialduco ditu* (10)) *-tu(ko)* forma hartzen duela, eta ez *-i(ko)* kidea.

- *-n*-ez bukatzen diren aditzen geroaldiak *-en* hartzen du ekialde zabaleko joerari eutsiz: *eguiñen* (2), *izanen* (3, 6, 9, 13, 14, 19, 22 [2], 23 [2], 30, 34), *emanen* (15, 24), *esanen* (22).

- *Izan* aditz laguntzailea. Singularreko 3. pertsonak orainaldian menderagailuren bat daramanean *de-* modura agertzen da: *den* (8, 10, 11, 18, 22, 30, 34), *dena* (12, 16, 22), *dela* (12), *delaric* (19). Pluraleko 3. pertsonarako bi forma agertzen dira: *dira* (1)/*dirade* (33). Mendekoetan ere bai: *diran* (1, 4, 11, 12, 14, 33), *diranac* (0, 3, 5 [2], 6, 14, 22), *badirala* (4), *diralaric* (6, 13), *dirala* (28), *diradenenac* (23). Ohartu, alde batetik, pluralerako gehienetan *dira* forma erabiltzen bada ere, bi kasutan *dirade* (23, 33) agertzen dela (ikus *-de*

pluralgile honi buruz Camino, 2013: 121); eta beste aldetik, sing. *den* pl. *diran* bikoiztasuna agertzen dela.

- \**Edun* aditzaren 3. pertsonak *du/dute* eta *ditu/dituzte* dira beti testuan. Bestalde, singularreko adizkiak menderagailuren bat hartzean *due-* modura heldu dira gehienak: *duenean* (22), *duen* (27), *duenarequin* (31); baina 22.ean *dunean/duenean* bi aldaerak agertzen dira, lehenbizikoa ahozkotik hurbilago dagoen seinale.

- *Nor-nori* saila. Hirugarren pertsonako *zayo/zayote* baizik ez dira aurkitzen: *zayo* (2, 16), *zayon* (15, 28), *zayolaric* (25), *zayote* (27), *zayoten* (24). Adizki mota hauetako *-te* pluraleko formaren inguruan, ikus Camino (2013: 120-121).

- *Nor-nori-nork* saila: *diote* (7, 15). Forma hau bakarra agertzen da testu guztian zehar eta ez dirudi *nori* eta *nork* 3. pertsonak bereizten direnik, hau da, ez du ematen 'die/diete/diote' pertsonak bereizten direnik. Kontuan izan alde honetan, hala nola Beterrin edo Nafarroako lekualde handian, ez dela *die* eta *diote* bereizten.

- Subjuntiboko formak direla eta, honako aldaerak aurki daitezke: *dadin* (0)/*dadiñ* (12) edota *dadilla* (13)/*dedilla* (azken paragrafoa). Laguntzaileak berak hartzen duen menderagailuetan ere bada *-(e)n/-(e)la* aukera: *dadiñ* (12)/*dadilla* (13), *ditecen* (4)/*ditecela* (4).

Bestalde, subjuntiboko aditz laguntzaileekin batera datozen aditz nagusiak zenbaitetan aditzoinarekin heldu dira: *allega dadin* (0), *aguer ditecela* (22), *nombra ditzan* (25), *publica dedilla* (azken paragrafoa); eta beste zenbaitetan, aldiz, partizipioarekin: *ez dadiñ atzeratu* (12). Ondoko esaldi honetan, esaterako, elkarren segidan, bi aukerak agertzen dira: *dispersatu ditecen edo bana ditecen facciosoac eta itzuli ditecela* (4). Ez du ematen, beraz, banaketa sistematikorik dagoenik. Dena dela, garai honetan posible da aditzoina eta partizipioa biak aldi berean erabiltzea, eta azken hau batez ere ukapen perpausetan.

- Ahalerazko aditz laguntzaileekin batera doan aditz nagusia ere aditzoina edo partizipioa izan daiteke, joera aditzoina erabiltzekoa den arren. Aditzoinarekin agertzen dira: *balia diteque* (17), *ecin luza ditequean* (19), *subministra dezaquete* (27), *ecin luza ditezqueanac* (33); partizipioarekin, ordea, beste hau: *ez diteque pasatu* (26). Testuan dauden mota honetako beste adibideak ez dira gardenak kontu honi buruz argitasunik emateko: *alditzaquean* (7), *eguin dezaque* (12), *eguin dezaquela* (16), *eguin dezaquete* (23), *eman diteque* (16). Arestiko puntuko azken oharrean esan dugun bezala, testu zaharretan aurki daitezke *-tu* eta *-i*-dun partizipioak, bereziki ukapenetan.

Azpimarratzeko iruditzen zaigu ahalerazko formaren ondoko erabilera hau: *parteac subministra dezaquete semaneroaren aurrean beren dezaqueten pruebac* (27), gaztelaniaz «*las partes pueden suministrar ante el semanero las pruebas que estimen conducentes*».

### 7.3. JOSKERA

Hemen argitaratu dugun testu hau itzulpena dela begiratu batean antzematen da. Gaztelaniazko dekretu baten (3. eranskineko edo honen oso antzekoa den beste baten) itzulpen ia hitzez hitzekoa da, bai grafiari dagokionez, bai hiztegiari dagokionez eta bai hitz ordenari dagokionez ere, eta gainera zenbaitetan hitzez hitzeko itzulpen horietan ez du guztiz asmatu

itzultzaileak. Honetaz xehetasun gehiago eman baino lehen, hainbat perpaus motatan aurkitu diren berezitasunak iruzkinduko ditugu deus baino lehen.

### *Baldintzazko perpausak*

- Baldintza erreala agertzen duten adibide ugari daude: *allegatzen bada* (0), *izaten badira* (2), *eguiten badute* (3), *baldiñ militia provincialac edo localac berez eguiten baditu presoac* (9), *baldiñ ezpada conformatzen* (10), *resultacien bada* (12), *ez bada izaten* (14), *baldin badira* (15), *baldin pruebac, eta indicioac inclinatzen badute* (16), *eguiten ez badu* (20), *ez badira presentatzen* (25), *ez baldin bada* (31), *bada* (32 [2]).

- Baldintza hipotetikoak darakusten adibideak dira ondokoak: *eguiñen balira* (2), *izanen balira* (8), *concurrituco baluque* (9), *baldin fiscalari iduritzen balitzayo* (12), *balitz* (19), *baldin parteac... balu eguitemo observacionen bat* (23).

Azken adibide hauei erreparatuz gero, ohar pare bat egin daitezke. Lehenik eta behin, *baluque* (9) aldaera dugu; bertan, baldintzazko bi osagaien (apodosiaren eta protesiaren) ezaugarriak hartzen baititu batera laguntzaileak (*ba-* eta *-ke*), beste laguntzaileek, ordea, ez, eta bere kide den *balu* (23) formak ere ez. Beste aldetik, azpimarratzekoa da *iduritzen balitzayo* (12) aldaera: adizki nagusiak aspektu burutugabea agertzen du; Euskaltzaindiaren arabera (2005: 41) egitura mota hauetan geroko aspektua mendebaldeko euskalkietan erabiltzen da, eta aspektu burutugabea ekialdekoetan. Testu honetan, ikus daitekeen moduan, biak agertzen zaizkigu, geroaldiko formak nagusitzen diren arren.

### *Kontzesio perpausak*

Perpaus mota hauen artean hiru esaldi topatu dira *nahiz* juntagailuarekin, hirurak zeresanik dutenak. Lehenbiziko adibidea: *nai[z] izan presoac eguiñac...* (3); transkripzioan kortxete artean *nai[z]* formari *-z* marka erantsi diogu lehenengo irakurraldian hobeki uler dadin. Ez dakigu eskribauari marka hau jartzea atzendu zitzaion, hau da, hutsa den, edo zinetan horrela paratu nahi zuen, zeren Euskaltzaindiak (2005: 245) dioenez «... batzuetan instrumentalaren *-Z* markarik gabe ere [NAI TA] erabiltzen da». Kontua da beste bi adibideak *-z*-rekin agertzen direla.

Bigarren adibidea honako hau da: *naiz izan dadilla... eguiña* (13) ‘nahiz eta... egina izan’. Esaldi honetan deigarriena subjuntiboaren erabilera da, ez baita jokaerarik ohikoena, eta *-la* menderagailua. Dena dela, Euskaltzaindiaren arabera (2005: 246) mota honetako perpausak –laguntzaile subjuntiboan daramatela– erabiltzen dituzten euskal autoreak ere badira: Etxeberri Ziburukoa, Axular, Argaiñaratz, Mendiburu, Iturriaga, Agirre Asteasukoa, Arrese Beitia, Orixe. Beraz, ez da erabilera guztiz arrotza. Bestalde, kontuan hartu behar da gaztelaniako «*aunque sea*» esapidearen itzulpen zuzena ere izan daitekeela.

Hirugarren eta azken adibidea beste hau da: *naiz procesatua ez dagola* (16) ‘nahiz eta prozesatua ez egon’. Badirudi aurreko egituraren parekoa dela, baina ezezkoan. Hemen ere aditz jokatuak (aurrekoan adizlaguntzaileak) *-la* menderagailua hartzen du. Kasu honetan zalantza sor liteke aditza indikati-

boan edo subjuntiboan dagokeen zehaztean, baina pentsatzekoa da gaztelaniako bertsioari estuki lotu zaiola.

### Denborazkoak

Denborazko perpausen artean nagusiki bi jokabide dira azpimarratzekoak. Alde batetik, *partizipioa* + *ezkero* egituraren erabilera; eta beste aldetik, denborazko esaldi bihurtzeko *denboran* adizlagunaren erabilera.

Lehenbiziko jokaera dela eta, honako adibide hauek ediren dira: *corteac observatu ezquero formalidade guziac constitucioan* (0), *errecibua artu ezquero* (14), *autoac itzuli ezquero* (21). Hiru esaldietan *ezkero* horren kidea 'ondoren' da. Gaztelaniazko bertsioak ere horretara bultzatzen gaitu: *Las Cortes, despues de haber observado todas las formalidades prescritas por la Constitucion* (0), *despues de su recibo* (14), *siguientes a la devolucion de los autos* (21). Hortaz, berdinketa hau proposa daiteke: *partizipioa* + *ezkero* = *partizipioa* + *ondoren*.

Beste aldetik, «denboran» adizlagunaren erabilera dugu. Honako bi adibide hauek ditugu: *bandoac esaten duen demboran* («en el término prefijado en el bando») (6) eta *oec declaracioa eguiteco demboran* (gaztelaniazko bertsioan esaldi hau hain zuzen ez da ageri) (23). Oraindik zenbait herritan adizlagun hau erabiliz eraikitzen dira denborazko esaldiak, esaterako, Leitzan (Olano, 1998: 267), Goizuetan (Zubiri/Perurena, 1998: 49)...

### Perpaus erlatiboak

Bereziki Euskaltzaindiak (1999: 218-240) zein-erlatiboak deitzen dituen erlatibo motei erreparatuko diegu. Adibideen artean ondoko esaldi hauek daude (itzulpenak ere paratu dira ondoan argitasunik eman dezaketen ikusteko):

- Lembicico instanciaco juezac ceñi tocatzen zayon ezagura causa oyena; «*El juez de primera instancia, á quien corresponda el conocimiento de estas causas*» (15).
- lista testigüena cargucoa eta descargucoa, ceñez baliatu nai duten bacochoac bere pruebaraco; «*la lista de los testigos de cargo y descargo de que intenten valerse para su prueba respectiva*» (21).
- Gañeracoac izanen dira esamiñatuac esortoz, ceñean observatuco den prevenitzen dena zaspigarren articuloan; «*Los demás se examinarán por exhorto, acerca del que se observará lo prevenido en el art. 7.º*» (22).
- baña atere gabe bacochoa bere juzgadutic, ceñetan arquitzen den yarria; «*pero sin salir de los respectivos juzgados en que se hallen radicadas*» (35).

Menderagailu anaforikoen kasu eta pertsonen jokaera ikusi ondoren, badirudi dagokion izenaren numero bera hartzen duela. Nahiko argi ikus liteke azken bi adibideetan –lekuzko kasuetan– «ceñean» singularrerako eta «ceñetan» pluralerako erabiltzen baita. Hala ere, azken honen gaztelaniazko bertsioari begiratuz gero, «ceñetan» hau pluralean egotea errazago uler daiteke, zeren euskarazko itzulpenean ondorengo esaldia ere «ceñetan arquitzen den yarria» singularrean itzuli baita.

Honetaz landara, aipatu behar da menderagailuaren atzizkia bi adibide hauetan *-an* dela, eta ez *-(e)n*: *ditequean* (19), *ditezqueanac* (33).



*Hitz-ordena*

Testu honek zerbait berezia baldin badu, gaztelaniazko hiztegia bere horretan erabiltzen duela eta gainera barra-barra egiten duela esateaz landara, hitz-ordena da; hau da, testua euskaratzekoan itzultzaileak erabili duen orpoz orpoko gaztelaniazko sintagmen eta hitzen ordena.

Nabari da itzultzaileak ez duela eskarmentu handirik itzulpen lanetan. Hitzez hitz itzuli nahi horrek eta gaztelaniazko testuaren ordenari jarraitu nahi horrek –agian estatuko dekretu bat zelako edo agian eskribauak itzulpen lanetan trebetasun handirik ez zuelako edo agian itzulpen lanetarako asti askorik ere izanen ez zelako– eramaten du itzultzailea euskarazko hitzen ordena eta sintaxia bortxatzerara eta askotan gramatikako oinarrizko arauak ere haustera.

Testuaren edozein zati irakurtzen hasi –sarrera edo edozein artikulua– eta berehala nabarmendu daiteke arestian aipatu dugun itzulpen urrina ez ezik, itzulpenaren gabezia nabarmenak ere. Testu osoa zehatz-mehatz aztertzen hasiz gero, ia dokumentu guztia ekarri beharko genuke berriz ere hona arrazoi batengatik edo bestearengatik; horregatik, hemen zenbait adibide baizik ez ditugu paratuko mostratako.

Adibideen zerrendari abiabide bat emateko eta dokumentu hau gaztelaniazko testu baten itzulpen hutsa dela erakusteko hona hemen ale batzuk errenkan:

- Legue onen objetoac dira formatzen diran causac, conspiracioz, edo maquinacioz, constitucioren observacioren contra (1).
- clase onetaco presoac arrapatzen diranac, suzco arma edo churiac, edo beste edociñ instrumento, ofenditzecoarequin (3).
- arrapatu culpanteac eta atajatu gaitza bere principioan (7).
- Edociñ caso aurreco articuloac esaten duten guisan (9).
- ordenanzaren conforme: (9, [2]).
- baña concurrituco baluque tropa permanenteac preso orien eguite-ra (9).
- acudituco dute conseju guerracora (9).
- bialduco ditu auto originalac lembicico correotic Tribunale especial guerraco eta marinacoari (10).
- egecucio pronto (12).
- naiz izan dadilla aprensioa fuerza armadacoac eguiña (13).
- baldin pruebac, eta indicioac inclinatzen badute jueza bere prudenciarequin siñistatzera tratatzen dena reotzat dela culpablea edo inocentea, eta causac ez duela presentatzen motivo fundaturican gueyago aurreratze-co sumarioan edo ofrecitzen zayo eguin dezaquela suficientemente plenarioan (16).
- Lista oyec comunicatuco dira parteay tachen oposioraco juicioa celebratu bearden egunean eta gañeraco efectoetaraco (21).
- Juezac señalatuco du alic ere lasterrena eguna testigüen presentioraco (23).
- Solemnidade berarequin leituco dira declaracioac presentatzen ez diradenenac personalm.<sup>te</sup> (23).
- eta escribituco dira nola galdeac ala observacioac, baita ere respuestac declaracioen ondotic (23).
- Notificaturican parteay Juezac emplazatuco ditu zortzi eguneco terminorequin audiencia territorialara (25).

- Tribunaleac fijatuco du terminoa autoen despachatzeco fiscal, Procuradorea, Reoarena, eta relatoarea. Eta ez diteque pasatu iru egunez termino conceditua bacochari (26).

- Causac arkitzen diranac orain berean arkitzen diran estaduan (35).

- Legueac materia onen gañean entendituco dira borratuac, contrario diranac presentecoari (36).

Itzulpena egiteko irizpideak ez dira beti bateratuak; hona nola iraultzen dituen itzultzaileak ondoko sintagma hauen ordena eta hiztegia:

- Juez lembicico instanciacoa (17).
- Lembicico instanciaco Juezac (18).
- juez primera instanciacoac (31).

Bestalde, ahozko hizkuntzan –bere izaeragatik– maizago suertatzen diren egitura jakinak aurki daitezke testuan, esaterako, izen sintagma bananduak (Zubiri, 2000); baina kasu honetan itzulpenagatik beragatik dirateke:

- comisio militarra, egecutiva, eta permanentea, provincia onetacoa (0).
- gañeracoac artan esaten diranac (0).
- casoa juzgatzecoa (0)
- Reoac edo presoac delito oyetacoac (2).
- presoac delito oyetacoac (13).
- ezagura causa oyena (15).
- declaracioac presentatzen ez diradenenac (23).

Morfosintaxi arauak bortxatu eta zenbaitetan hausten dituzten adibideen artean, besteak beste, ondoko hauek aurki daitezke.

a) Absolutiboko markak zuzen erabilia ez daudenak edo deklinabideko kasuren bat falta dutenak:

- legue Apirillaren milla, zortzitan eun eta ogeuita batecoren conforme (0).
- zortzigarren leguea titulo 17, libru 12, recopilacio berrian dagon bezala (2).
- legue 10, titulo 10, libru 12, recopilacio berean dagon becela (3).
- persona esaten diran oyec (5).
- casoren batean esaten duten becela articulo 2º. eta 3º (8).
- izanen balira arrapatuac egercituco tropac, edo milicia Provincialac, edo localac (8).
- consejo guerraco ordinario componduco da (9).
- consultaren necesidad gabe (10).
- prevenitzen dena zazpigarren articuloan Burubillaren amaicagarreneco leguea 1820 (22).
- ez baldin bada conformidade oso favorable Reori (31).
- Plazo señalatzen dituenac legue onec (33).

b) Genitiboen erabilera. Deklinabideaz hitz egin denean, bereziki genitiboen atalean, azaldu dira xehetasun gehiagorekin arlo honetako gertakariak; ale bat edo beste ekarriko dira hona mostratako:

- erreguearen ordenen conforme (0).
- consejo Guerraco ordinarioan (2).
- eta pasaturic orduen numeroa señalatua autoridadeac bando orretan circunstancian conforme (5).

- ez diralaric autore conspiracioco principalac (6).
- Obligacioa paratua Policiaco autoridadeay bandoaren publicatzearen gañean (7).
- esan den leguearen conforme (34).

c) Komunztadura falta –mota batekoa edo bestekoa– edo zenbaitetan aditza bera oker erabilia dago (sail honetako azkeneko adibidean mendeko perpauis erlatibokoa, esaterako):

- eguiten badute contra arrapatzen dituen Tropari (3).
- Compliceac legue onec tratatzen duen delituetan, izanen dira juzgatuac Reo principalac bezala (34).
- arreglaturic len esan den Real ordenari (11).
- eta bear zayote admititu arreglaturic legueari (27).
- Casoetan votoac berdin diranean, (31)
- ez badira presentatzen procuradorea, eta abogadua Reoac nombra- tuac residitzen dutena orduban capitalean «*si ... no se presentasen procura- dor y abogado nombrados por el reo, y que residan á la sazón en la capital*» (25).

d) Itzulpenean nahasketa suertatu da, hau da, atalen bat gaizki itzulia dago edota ulergaitza egiten da. Gaztelaniazko jatorrizko testuaren laguntzarik gabe zaila litzateke ongi ulertzeta eta interpretatzea:

- nai izan presoac eguiñac ordenarequin edo ausilio emanarequin au- toridade civilari; «*aunque la aprehension proceda de orden, requerimiento ó auxilio prestado á las autoridades civiles*» (3).
- Obligacioa paratua Politicaco autoridadeay bandoaren publicatzearen gañean; «*La obligacion impuesta á las autoridades políticas sobre la pu- blicacion del bando*» (7).
- Legue onen causalean ez da izanen lecuric competenciaraco ez bada izaten jurisdicio ordinarioa, eta militarren artean; «*En las causas de esta ley no habrá lugar á competencia alguna, fuera de la que pudiese suscitarse entre las jurisdicciones ordinaria y militar, segun los límites que aquí se señalaran*» (14).
- emanen diote preferencia exclusivo bat, caso bearrean pasatzeco cla- se distintocoac bestera edo beste Juezatara; «*les dará una preferencia exclu- siva, pudiendo en caso necesario pasar las de distinta clase al otro u otros jueces*» (15).
- naiz procesatua ez dagola, choll venzitua; «*aunque el procesado no esté plenamente convicto*» (16).
- balia diteque edociñ escribo Re.[al] edo númeroco partiducoaz «*podrá [...] valerse de cualquier escribano Real ó Numerario del partido*» (17).
- Testigüen listac esanen dute vecindadea, estadua, eta destino edo modua vicitzeco. Testiguac arkitzen diranac zazpi legoa edo queyago bide regularraren beren residencia juzgado, edo Tribunaletic izanen dira avisatuac; «*Las listas de los testigos expresarán en cada uno de ellos su vecin- dad, estado y destino ó modo de vivir. Los testigos que se hallaren dentro de las siete leguas, ó á una jornada regular de la residencia del juzgado, serán compelidos á comparecer*» (22).
- Tribunaleac ez du izanen causa oyetaraco orduen numero determi- naturic (30).
- Erortzen den sentenciac causatuco du egecutoria. Libertadecoa bada egecutatuco da bertatic; «*La sentencia que recayere causará egecutoria. La de libertad se egecutará inmediatamente*» (32).



- Plazo señalatzen dituenac legue onec dirade ecin luza ditezqueanac pretesto, suspensio, restitucio eta beste gañeracoac gatic, ez dira ere admititucio instancia eta recurso indultucoric; «*Los plazos que señala esta ley son improrogables [sic] y perentorios, y no pueden alargarse á título de suspension, restitucion ni otro alguno. Tampoco se admitirán en ninguna de las instancias recursos de indulto*» (33).

e) Itzulpen literalera jotzen denean zenbaitetan egitura pasibo eta pasibo-antzekoetara iristen da. Ondoko hauek, esaterako, errazago eta zuzenago eman daitezke euskaraz:

- izaten badira atzemanac tropaco partidaren batec (2) —> «tropaco partidaren batek atzematen baditu».

- izanen dira juzgatuac jurisdicio ordinarioac (13) —> «jurisdizio ordinarioak juzgatuko ditu».

- Declaracioac izanen dira firmatuac daquiten testigüac (23) —> «Deklarazioak firmatuko dituzte (sinatzen) dakiten testiguak (testigüek)».

Laburbilduz, esan daiteke itzulpen literalegia dela honako hau eta gainera zenbaitetan, eman ditugun arrazoiengatik, nahiko trakets itzulita dagoela.

## 8. HIZTEGIA

Testuan erabiltzen den hiztegi gehiena gaztelaniatik zuzenean hartutakoa da; orain arte eman diren adibideek argi asko erakusten dute hori. Lagintzat, honako bi pasarteño hauek eman genitzake adibidez: *arrapatu culpanteac eta atajatu gaitza bere principioan* (7), *egecucio prontoia* (12). Alde horretatik ez da oso aberatsa itzulpena.

Hala ere, baditu hiztegi mailan zenbait berezitasun azpimarragarri direnak.

- Hitz beraren aldaera desberdinak: *ezaugüera* (0)/*ezagura* (0, 2).

- Idequi (< ireki): *idequiaquin* (23). *OEH*-n Bortzirietako aldaeratzat jotzen da, besteak beste. Hala ere, formarik zabalduena dela dio.

- *Iguesi diocela* (5). Alde batetik, *iges* forma agertzen zaigu «g» frikariarekin (cfr. *iaz/igaz*, *leor/legor*... hitzetan bezala), eta beste aldetik *diozela* 'dihozazela', *joan* aditz trinkoaren pluraleko 3. pertsona.

- *Galdeak* (23); *-r*-rik gabeko forma. Dena dela, kontuan hartu hainbat lekutan, Luzaiden esaterako, *galde* 'eskaria' eta *gald(e)in* 'galdetu' esaten dutela.

- Hilabeteen izenak: *burubillaren* (22) 'irailaren', *illbeltzaren* (izenburuan) 'urtarrilaren'.

- *Napurrac* (8) 'lapurrak'. *OEH*-aren arabera mendebaldekoa edo ekialdekoa izan daiteke aldaera hau. Gertakari hau, hots, *l/n-* txandaketa, ez da arrotza euskaran (cfr. *larru/narru*, *la(ha)r/na(ha)r*...) eta Mitxelenak (1977: 324 eta 551) dio kasu honetan *l*-dun forma *n*-duna baino zaharragoa izan litekeela, gainera «napur» aldaera Baztangotzat jotzen du, Azkuek (1969) bezala; baina ez Izetak (1996) eta ez Salaburu/Lakarre (2005) ez dute jasotzen aldaera hau beren Baztango hiztegietan.

- *choll* (16) (< txoil) ‘erabat, guztiz’. Azkuek (1969) gipuzkoar eta goi-nafartzat jo zuen.

- ... *leituco dira* [...] *escribituco dira* (23). Eta ez *irakurri* eta *idatzi*. Jakina, *irakurri* zaharra da, baina *idatzi* aldaera Sabino Aranaren asmakaria da, eta ezin asmatua izan aurretik ibili.

- Zenbait aditz agertzen dira gaur egun ziurrenik ezezagunak edo arrunt gutxi erabiliak, Doneztebe inguruan bederen:

*atzemanac* (2) ‘harrapatuak’;

*eragotzico* (7) ‘galaraziko’;

*iderotzen* (5, 20) ‘aurkitzen’; *idero* aditza ez da *OEH*-n agertzen; baina *ediren* aditzaren aldaeraren bat izan liteke, edo *ediro* aldaeratik abiatuz metatesiz sortutako forma. Bitxia suertatzen da, baina 15 urte lehenago, 1825ean, Goizuetako ordenantza batean agertzen da hitz hau berau (Satrustegi, 1996: 299 eta 312).

- Kontuan hartzekoa da *siñistatzera* (16) agertzen dela eta ez «siñistera».

- *Barren*, ez «barru». Adibideak: *48 orduren barrenean* (14), *iru egunen barrenean* (19, 29), *ogeita lau orduren barrenean* (20, 21), *plazoen barrenean* (27); *barrengo* (1).

- *Gisal/gisan* bi aldaerak agertzen dira: *guisan* (9), *guisa* (35).

- *Atera* aditza: *atere* (35) moduan agertzen zaigu. Gero, hemendik, *ateri* Bidasoaldean erabiltzen den aldaera berria sortu zatekeen bukaerako bokala gehiago itxiz.

- *Oraindik*. Testuan *orañik* (8) bezala heldu zaigu.

## 9. EUSKALKIAZ

Euskalkia zehazteko testuan barrena aurki daitezkeen hainbat aztarna eta ezaugarri aipatuko da segidan.

Lehenbiziko aztarna –eta garrantzitsuenetakoa agian– izenburuan bertan da, hau da, lekua eta data: *Doneztebe* eta *1840*. Horrek laguntzen du, euskalkiari dagokionez, testua kokatzen. Dena dela, hizkuntzari buruzko ezaugarriak xehetuko dira ondoren (azpi)euskalki horretakoa den edo ez zehazteko.

- *Batallona* (0). Zuazoren arabera (2014: 39, 97, 108), Nafarroako eskualdeetako ezaugarria da erd. -(i)ón > eusk. -(i)on bukaera hartzea: *melón* > *melon*, *balcón* > *balkona*, *montón* > *montona*. Testuan horrelako adibide bat badago: *batallona* (0) (< *batallón*).

- *Milla zortzitan eun eta berrogei* (0). Zenbatzaileak emateko modu hau nafarra da (Zuazo, 2014: 100).

- *Esan* (eta ez *erran*). Testuan beti *-s*-rekin agertzen da. Nafarroako ezaugarria da *-rr*-dun aldaera; baina horrek ez du *esan* nahi *-s*-dun formak Nafarroakoak ez direnik. Nafarroan *-r/-s-* (cfr. *erran/esan* aditzarena) bana-keta non dagoen jakiteko ikus daiteke, adibidez, Etxaide (1989: 313). Donezteben *-rr*-dun aldaera agertzen da.

Honetaz gain aipatzea komeni da *-rtz/-st-* kontsonante multzoaren txandaketa eta banaketa geografikoa (cfr. *bertzel/beste*, *ortzegun/ostegun*...). Testuan beti *beste* (2, 3, 6, 13, 15 [2], 18, 33) aldaera agertzen da, eta ez Nafarroako ekialdeko *bertze*.

- Zenbait hitzen eta aditzen hasierako *j*- soinua (cfr. *jan, jarri, josi...*). Testu guztian mota honetako hitz bakarra agertzen zaigu: *yarria* (35), ahoskera sabaikariarekin.

- *-ikl/-ikan* aldaerak. Aldaera hauek partitiboan, ablatiboan eta beste hainbatetan aurki daitezke (ikus 6. puntua). Zuazok (2014: 116-17 eta 211) dio *-ikan* forma Gipuzkoatik zabaldu zela eta Nafarroako ipar-mendebalean daukala indarrak handiena, besteak beste. Hortaz, erdiguneko ezaugarri honen aztarnak aurkitzen dira testu honetan, nahiz eta gehienak *-an* gabeko formak izan.

- *Bezala/bezela*. Bi formak agertzen dira testuan: *bezela* (3, 8) eta *bezala* (2, 4, 6, 8, 11, 14, 18, 30). Kontuan izan paragrafo berean, 8. artikuluan, bi formak ematen direla elkarren segidan.

- Prolatiboa dela eta, testu honetan bi adibide baizik ez dira aurkitzen, eta bietan *-tzat* dugu: *acabatutzat* (16) eta *reotzat* (16). Azken bi mendeetan *-tako* prolatibo atzizkia ekialdera hedatu bada ere, hemen *-tzat* bakarrik dugu.

- Hainbat aditzen geroaldiek, bereziki *-n-z* bukatzen dirennek, *-en* morfema hartzen dute eta ez *-ko*; testuan ondoko hauek agertzen dira: *egiñen* (2), *izanen* (3, 6, 8, 14, 19, 22, 23, 30, 34), *esanen* (22), *emanen* (15, 24). Ezaugarri hau ere ekialde zabalekoa da.

- Zuazoren arabera (2014: 45), *izan* aditzaren singulareko 3. pertsonan *-a/-e-* dauzkagu: *dan, dala, zan, zala* mendebalean eta erdialdean, eta *den, dela, zen, zela* ekialdean. Testuan *-e*-dun formak agertzen dira (ikus 7.2. puntua). Baina kontuan hartu pluraleko hirugarren pertsonan *diran/dirala* agertzen dela.

- Ekialdean partizipioa eta aditzoina bereizten dira (Zuazo, 2014: 246). Testu honetan ahalerako eta subjuntiboko formekin aditzoina erabiltzeko jorera dagoen arren, ez dirudi ezaugarri hau txoil betetzen denik, ez baitago bien arteko bereizketa argirik (ikus 7.2. puntua).

- *Behar izan/\*edun + partizipioa*. Hein batean, ekialdeko ordena du, edo agian gaztelaniarena. Ondoko adibide hauek daude ordena horrekin, eta partizipioak beti bukaeran edo laguntzailearen ondoren datoz:

- eta onec beardu eman bere sententia (10).
- Informacioan beardu resultatu bete betea acreditatua (16).
- eta bear zayote admititu arreglaturic legueari (27).
- edo onen partez dagoena[k], bear du beti asistitu (28)
- bear da pronunciatu sententia (29).

- Aditz izenaren osagarriak. Eibartarraren arabera (Zuazo, 2014: 244), osagarri mota hauek genitiboan paratzea, egun, ekialdeko ezaugarritzat jo daiteke (cfr. *lagunaren ikustera joan da*). Testu honetan horrelako egiturak agertzen zaizkigu, 7.1. puntuan edutezko genitiboari eskainitako objektuaren genitibizazio egiturei buruzko zatian aipatu dugun bezala.

- *\*Edun* aditzaren 3. pertsonako *-el-te* (cfr. *duel/dute*). Nafarroan *-e* erabiltzen dute Araitz-Betelu, Larraun eta Basaburu Txiki gehiengan (Goizueta, Saldias eta Beintza-Labaien alde batera utzita, hauetan *-te* aldaera berriagoa aurkitzen baita). Erdiguneko ezaugarritzat jotzen da berrikuntza hau. Testuan *-te*-dun formak agertzen dira bai aditzaren pertsona honetan, bai

*nor-nori* sailaren 3. pertsonan ere (ikus 7.2. aditzaren atalean \**edun* aditzari eta «*nor-nori* saila») azpizatiei buruz dioguna).

Hiztegiari dagokionez honako hauek azpimarratuko genituzke:

- *Itxe* 'etxe' aldaera, hasierako bokalaren itxidurarekin: *itxetara* (4, 6), *itxetatik* (5). Basaburua-Oronozko formatako jotzen dute Salaburu/Lakarrekin (2005: 10).

- *Paratu* 'jarri' adieran hitz nafarra da (Zuazo, 2014: 100). Testuan bi aldiz agertzen da: *paratzen delarik* (0), *paratua* (7).

- *Buruila* 'iraila'. Testuan *burubillaren* (22) agertzen da. Zuazoren arabera (2014: 117), hitz hau nafarrerako ipar-sartaldeko lexikoaren ezaugarria da.

- *txoil*, *atere* (bukaerako bokal itxierarekin) eta *napur* hitzak ere Nafarroako ipar-ekialdean erabiltzen dira.

- *Bakotz*. Kontuan izan, hala berean *bakotx* aldaera oso arrunta dela Nafarroan. Testuan beti *bakotx* aldaera agertzen da: *bacocha* (4, 23, 35), *bacochac* (21), *bacochari* (26).

Hortaz, laburtzeko, esan daiteke testuak honako ezaugarri hauek dituela nafarrak edo ekialdekoak: 1.- *-on-ez* amaitutako hitzak (cfr. *batallo-na* (0)). 2.- Zenbatzaile kardinalak (cfr. *milla zortzitan eun eta berrogei* (0)). 3.- Geroaldia *-en* morfemarekin (cfr. *egiñen* (2), *izanen* (3), *esanen* (22), *emanen* (15)). 4.- *Izan* aditzaren singularreko 3. pertsonako *-e-* (cfr. *den*, *dela*, *zen*, *zela*). 5.- Zenbait hitzen eta aditzen hasierako *j-* soinua: *yarria* (35); Nafarroako alde honetako ezaugarria da. 6.- Alde honetako hiztegia: *itxe*, *paratu*, *buru(b)ila*, *txoil*, *napur*, *atere*, *idero* (?), *atzeman*.

Aitzineko ahapaldiko 1, 2, 3, 4 eta 5 ezaugarriak eta 6ko «buruhil», «*ñapur*» eta «*hatzeman*» hitzez landara, bi ezaugarri daude Ipar Euskal Herrian ere ageri direnak: 1.- Hitzen ordena: *behar izan!\***edun* + *partizipioa*. 2.- Aditz izenaren osagarriak: objektuaren genitibizazioa (cfr. *lagunaren ikustera joan da*).

Erdialdeko ezaugarrien artean, berriz, beste hauek aipa genitzake: 1.- *-ik/-ikan* aldaerak, *bezala/bezela* bikotea bezalaxe. 2.- Partizipioa/aditzoina ez dira ongi bereizten subjuntiboko edota ahalerako adizkiekin. 3.- \**Edun* aditzaren hirugarren pertsonako *-te* (cfr. *dute*); kontuan har, hala ere, hau Ipar Euskal Herrikoa ere badela, Zuberoa alde batera utziz.

Batez bestekoaren pisua zein den ohartuz, ikus daiteke ezaugarri nafarrek karga gehiago dutela, baina erdialdeko ezaugarriek ere badutela beren zama puska. Hori dela eta, ondoriozta daiteke testuaren euskalkia nafarrera dela, zalantzarik gabe, eta azpieuskalkia –Zuazoren terminologiaren arabera– ipar-sartaldekoa.

Dena dela, testuaren izenburuan «Doneztebeko herrian» *paratzen* badu ere, esan behar da hizkeraren aldetik ez dela Doneztebeko bertako euskara erabiltzen, ez gutxienez orain ahoz egiten dena; eta zalantza egiten dugu garai hartan Donezteben *beste* eta *esan* hitzak zinez herriaren ahotan erabiltzen ote ziren. Bestalde, gaur egun gutxienez (Zelaieta, 2004: 235; Iñigo, 2007: 292) hitzari artikulua gehitzerakoan asimilazio fonetikoak suertatzen dira alde honetan (cfr. *-o + a = -ua* eta *-e + a = -ia*); testuan, ordea, ez da horrelakorik ageri. Hortaz, esan daiteke testuak, Doneztebeko hizkerarekin aldearatz, sartaldera –erdialdeko euskalkira– gehiago jotzen duela sortaldera –Baztan aldera– baino. Edo menturaz behera, ez sortaldera, Basaburu Nagusi aldera.

## 10. ONDORIOAK

Zalantzarik ez dago euskararen alor idatzia hornitzen laguntzeko aletxo bat baizik ez dela –txikia guztiz, eta gainera ez eredurik bikainena ere ziurrenik–, baina gure ondare hori zabaltzen joateko eta euskalki desberdinetako testuak ezagutarazi ahala alderdi hori aberasteko balioko du. Gainera, mota honetako testuak –zuzenbideko testuak, alegia– ez dira erruz aurkitzen euskal testuen historian.

«Doneztebeko 1840ko batallionaren ordena» hau, garbi dago gaztelaniako dekretu baten itzulpen argia dela, hain zuzen ere 3. eranskinean heldu den dekretuarena (edo honen oso antzekoarena).

Hizkuntzari dagokionez, egin den itzulpena ez da batere ona; hori age-rian uzten da bai erabiltzen den hiztegiagatik –ia dena gaztelaniatik hartu eta bere hala emana baitago–, bai erakusten duen hitzen ordenagatik ere, erabiltzen den joskerak orpoz orpo jarraitzen baitio gaztelaniakoari –euskaratzera-koan zenbaitetan gramatika hutsak eginez, gainera–, eta hau ere testu guztian zehar arrunt nabarmen gelditzen da.

Euskalkiari dagokionez, azaldu dira zein diren testuan agertzen diren ezaugarriak, eta adierazi da testuaren izenburuan «Doneztebe» paratzen duen arren, ez dituela han bertako gaurko eta ahozko hizkeraren ezaugarri guztiak betetzen, testuan erabiltzen den hizkera nafar horrek badituela, iparraldeko hainbat ezaugarri gain, erdialdeko euskalkiaren ezaugarriak ere, eta, hortaz, ezaugarri batzuen eta besteen pisua aintzakotzat hartuz esan behar da, Zuazok darabilen terminologia erabiliz, sartaldeko ipar nafarreraren azpieuskalkiaren barrenean kokatu behar dela itzultzaileak darabilen hizkera.



ERANSKINA

1. Jatorrizko izkribua

*Estadilloaren ordena, 1808ko amaierako, nullo zortetan auzi eta berrogei. 1.º*  
*Justitziaren bere funtzioak, imioi multzoa, executiva, eta permanentea, proisioa etablia, eta zianio preioa, juzgatuak leque 2.º*  
*Justitziaren nullo, zortetan auzi eta egueta batez inoio, 3.º*  
*Justitziaren, 4.º*  
*Justitziaren, eta gaurioa eta auzi inoio, 5.º*  
*Justitziaren, 6.º*  
*Justitziaren, 7.º*  
*Justitziaren, 8.º*  
*Justitziaren, 9.º*  
*Justitziaren, 10.º*  
*Justitziaren, 11.º*  
*Justitziaren, 12.º*  
*Justitziaren, 13.º*  
*Justitziaren, 14.º*  
*Justitziaren, 15.º*  
*Justitziaren, 16.º*  
*Justitziaren, 17.º*  
*Justitziaren, 18.º*  
*Justitziaren, 19.º*  
*Justitziaren, 20.º*  
*Justitziaren, 21.º*  
*Justitziaren, 22.º*  
*Justitziaren, 23.º*  
*Justitziaren, 24.º*  
*Justitziaren, 25.º*  
*Justitziaren, 26.º*  
*Justitziaren, 27.º*  
*Justitziaren, 28.º*  
*Justitziaren, 29.º*  
*Justitziaren, 30.º*



hore prudentiaroquin inuoluntate tractatu dena ratat dela culpabilis et innocenti  
 de causa et de la punitioe motio fundatarioa queyago auerentioe inuoluntate  
 de operatuo ray equis deaque lo suficientemote plenarioa. 57. Sumaria forma  
 seta, fuea lambicis iusticiae, bala deoque dicitur ex parte M. deo inuoluntate  
 ducere. 58. Sum bialis iusticiae fuea acordatus du pira separatuo formacioa  
 presentandea beralis lege auer auer baparen articuloa. 59. Prebitate delari e  
 Presari confesio eta balite moritua de Peaia auerentioe, formacioe de pira  
 fiscalis in equis baparen queyago: bitaliduo auto motio presentu inuoluntate  
 in, lura de loyean tarmino baparen, eto, recabitua de causa punitioe. 20. Presar  
 equita lau uideren baparen lucanae nombritua dita procuradorea eta abogadu  
 la diuinae punitioe de ordian, in iderent diuinae, eta equita et bala, nombritua  
 dita botalis oficioe. 21. Presario fiscalis eta Presaren procuradorea presentatao bala  
 equita lau uideren baparen auerentioe equis, dita botalis equita eta de currua,  
 reber babilis in diten botalis hore punitioe. Sista oye inuoluntate dita punitioe  
 tamen punitioe punitioe celebratu baparen equita eta punitioe oficioe. 22. Botalis  
 botalis auerentioe inuoluntate, eto, dita de loyean de inuoluntate. Botalis equita  
 nae rayo loyean de queyago bala regularitatem baparen inuoluntate punitioe, deo  
 inuoluntate dita auerentioe auerentioe dita punitioe. bala ore punitioe bala  
 reclamatu ducen eta fuea et botalis duenan dela punitioe auerentioe eta de currua  
